

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

HEZKUNTZA  
ETA KIROL  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN  
Y DEPORTE

***AIZU, NESKA! EZ ZAUDE BAKARRIK***  
**ANTZERKI FOROA GENERO INDARKERIA**  
**SALATU ETA GEURE ARTEAN SARETZEKO**  
**TRESNA GISA**

GRADU AMAIERAKO LANA

Egilea: Sarasola Amigorena, Maddi.

Zuzendaria: Sainz de la Maza Alday, Eider.

**2021**

## Aurkibidea

1. SARRERA.....	4
2. MARKO TEORIKOA.....	6
2.1 Zapalduen antzerkia .....	6
2.1.1. Sarrera.....	6
2.1.2. Motak eta erabilgarritasunak.....	7
2.1.3. Baliabide teatralak eta estetikoak: beroketak, jolasak eta dinamikak.....	9
2.1.4. Antzerki Foroa.....	10
2.2. Genero indarkeria. Landuko diren gaien teorizazioa .....	11
2.2.1. Sarrera.....	11
2.2.2. Gaiak eta kontzeptuak.....	12
3. JUSTIFIKAZIOA .....	17
4. ALDERDI PRAKTIKOA .....	18
4.1. Zein da antzezlanaren jatorria? Zein testuinguru du?.....	18
4.2. Aurre-beroketarako jolasak ikusle-aktoreekin .....	20
5. <i>AIZU, NESKA! EZ ZAUDE BAKARRIK ANTZERKIA</i> .....	22
Gidoia: .....	22
5.1. FORUMARI HASIERA EMANGO DIOGU.....	33
5.1.1. Obraren analisisa: .....	33
6. AZKEN HAUSNARKETA PERTSONALA.....	39
Bibliografía .....	42

Lan honen helburua nik neuk bizi izandako genero indarkerietatik abiatuz geure artean saretzea izan da. Horretarako, *Aizu, neska! Ez zaude bakarrik* Antzerki Foroa sortu dugu, hainbat adituren ekarpenak aintzat hartuz. Ondorengo lerroetan feminismoaren jantziak ezinbestekoak izan dira pairatutako indarkeriak identifikatu eta aletu ahal izateko. Antzerki obra aurkeztu eta gero, zein bidegabekeria aldatuko genituzkeen ondorioztatu dugu; hartara, erasoan aurrean erantzunak eraldatu eta modu kolektiboan jokatzeko.

*Antzerki Foroa, feminismoa, genero indarkeria, sarea, eraldatu, bizipenak.*

El objetivo de este trabajo es tejer una red entre nosotras partiendo de las violencias de género que yo misma he vivido. Para eso, teniendo en cuenta las aportaciones de diferentes expertos, hemos creado el Teatro Foro que se titula *¡Oye, mujer! No estás sola*. En los siguientes párrafos, han sido imprescindibles las aportaciones teóricas del feminismo, sobre todo para poder identificar y desgranar las violencias sufridas. Tras la presentación de la obra de teatro, hemos recogido las conclusiones de de qué injusticias cambiaríamos; para así transformar las respuestas ante las agresiones y actuar de forma colectiva.

*Teatro Foro, feminismo, violencia de género, red, transformación, vivencias.*

The aim of this project is to analyse the attitudes and characteristic of macho oriented behaviors. *Listen girl! You are not alone* the Forum Theater we just created taking into account the words of the experts. In the next pages you will be able to detect and understand how feminist theories can alleviate macho man attitudes. After the performance, we want to test the things that we need change in order to modify our collective responses.

*Forum Theatre, feminism, gender violence, network, transformation, experiences.*

**“La gran enseñanza que nos dejó Boal es que tenemos la obligación de inventar otro mundo, porque otro mundo es posible”**

Tomás Motos (2009)

## **1. SARRERA**

Antzerkia eta hezkuntza. Nork esango zidan honelako harreman estua izan zezaketenik. Aitortu ere aitortu beharra daukat, agian, orain arte, gehiegi xerkatu ez dudan eremua izan dela. Lan honi esker, ordea, aztarrika denbora luzez egoteko aukera ederra izan dut. Ikasketetarako zubi ezin hobea izan daitekeela ikasi ere ikasteko balio izan zaidana. Ondorengo magal luze txiki honetan eskainiko dudan proposamenarekin antzeman ahal izango duguna.

Lehenik eta behin, *Aizu, neska! Ez zaude bakarrik* antzerki lana erditzeko nire bizipenak izan ditut ardatz. Zehatzago esanda, emakume izate hutsagatik bizi izan ditudan eta bizi ohi ditudan zenbait bidegabekeri izango ditut jomugan, deserosoak izan diren zenbait gertaera salatzen asmoarekin. Horretarako, barrenak behar bezala ateratzeko, ezinbestekoa izan zait Feminismoa. Marko teorikoa osatzeko bidelagun garrantzitsua izan da, beraz. Kontzeptu konplexua dirudi, baina argi azaltzen duten adituei esker erraz uler daiteke zertan datzan: feminismoa justizian oinarritzen den diskurtso politikoa da. Feminismoa emakumeek egituratutako teoria eta praktika politikoa da. Bizi diren errealitatea aztertu ondoren, emakume izatearen arrazoi bakarragatik jasaten dituzten diskriminazioez jabetu eta antolatzea erabakitzen dute, bidegabekeria horiekin amaitzeko, eta ondoren, gizartea aldatzeko. Errealitate horretatik abiatuta, feminismoa filosofia politiko gisa eta, aldi berean, gizarte-mugimendu gisa egituratzen dela azaltzen du Nuria Varela adituak (2008). Irantzu Varelak (2020) badu zer erantsi, etengabeko transformazioan dagoen mugimendua baita, hortaz, egun feminismoa zapalkuntza mota guztien aurkako borroka edo tresna baliagarria dela azaltzen du. Hasiera batean, emakume talde zehatz baten zapalkuntzak lehenesten baitziren. Orain, berriz, begirada zabaldu eta bere konplexutasunean murgildu da, bestelako errealitate, zapalkuntza eta bizipenak aintzat hartu eta perspektiba interseksioanalak<sup>1</sup> erdigunean jarrita, besteak beste. Hortaz, orain artekoa borobiltzeko, Bell Hooks aktibista eta idazleak azaltzen duen modura, feminismoa gizartea transformatzeko giltzarria dugu, norberaren errealitatea ulertu, oharkabean normalizat ditugun zapalkuntzez jabetu, eta transformatzeko giltza

---

<sup>1</sup>Irantzu Varela (El feminismo interseccional, 2021) <https://www.youtube.com/watch?v=uYeRxoMvQ6Q>

eskaintzen baitigu: feminismoak emakumeen bizitza ez ezik, errealitatea eraldatzeko gakoak bilatzen dituen guztien bizitza aldatzeko ahalmena ere badu (Bell Hooks, 2017, 14. or.).

Eskuartean dugun lan hau iruteko feminismoaren ezinbesteko beharra azaldu ondoren, antzerkiaren eremu oparora bueltatuko gara. Ondare zabal honetan, Zapalduen Antzerkia jorratuko dugu, hain zuzen. Modalitate ezberdinen sorta denez, Antzerki Foroak eskaintzen dituen tresna metodologikoak hautatuko ditugu kasu honetan. Esan bezala, feminismoaren antzera, antzerki metodologi honen helburu garrantzitsuetako bat gizartea eraldatzeko tresnak eskaintzea litzateke (Boal, 2018). Metodologia askatzailea izanik, Augusto Boal sortzaileak modu konplexuan ulertzen du: “no se trata solo de hacer teatro político, sino de hacer políticamente el teatro” (Boal, 2018, 15. or.). Gizakiak egiten duen aktibitate oro politikoa dela azaltzen du, eta antzerkia horietako bat dugu. Are gehiago, Zapalduen Antzerkia askapenerako arma baliagarri eta eraginkor moduan aurkezten du, eta nola ez, lehen aipatu bezala, errealitatea transformatzeko bide ematen digun tresna moduan ere (Boal, 2018).

Lucía Calleja adituak dion bezala:

Artea bide erabilgarrienetako bat da pertsonaren egitura emozionalera iristeko eta, hortik abiatuta, bere sistema pertsonal eta sozialaren barruan ezarritako ereduez jabetzeko (Cenizo, Del Moral eta Varo, 2011). Jarduera artistikoak, oro har, eta antzerkia, bereziki, gizarte- eta hezkuntza-arloko funtsezko tresna dira arazo sozialei heltzeko, horiek osatzen dituzten elementu ugari (gorputzekoak, emozionalak, sozialak, ludikoak eta komunikatiboak) direla eta (Mundet, Beltrán eta Moreno, 2015). Horregatik antzerkia da esku-hartze proiektu honen funtsezko pieza (Lucía Calleja, 2018, 1-2. or.).

Beraz, lan honen hezurdura azalduta, mamia geratuko litzateke azaltzeke: jorratuko den gaia nagusiki genero indarkeria izango da. Gai potolo horren zenbait kimu aztertuko ditugu, batez ere, arestian azaldu bezala, nire esperientzia pertsonalean bizi izandakoak izango ditugu jomugan. Hortaz, nahiko lan pertsonal edo barnekoa dugu. Horrenbestez, feminismoak plazaratutako esaldi honek paper protagonista izango du, “lo personal es político” (Carol Hanisch, 2016), esaldi potoloak hain zuzen. Orobat, aitatu beharra daukat azken baieztapen hori aurkikuntza ezinbesteko izan zela eta dela, hala nola patriarkatuaren estrategia zenbait bistaratu eta identifikatu ahal izateko (Carol Hanisch, 2016).

Azkenik, aurreko lerroak aintzat harturik, ondorioztatu genezake feminismoa, antzerkia eta bizipen pertsonalak ardatzean jarrita transformaziorako osagai ezin hobeak izan daitezkeela: antzerkiak bidea errazten du pertsonala den hori publiko eta aldi berean politiko bihurtzen, norbera askatzeko eta eraldatzeko helburuarekin; feminismoak, berriz, praktika eta teoriei esker, eremu pertsonala publiko egiten errazteaz gain, nork bere errealitatea aldatzeko kritikotasuna eta tresnak eskaintzen dizkigu, ondoren ingurua eraldatzeko bide ematen duelarik. Hortaz, bizi izandako injustiziak antzerkiaren bidez salatuz, bestelako mundu bat lortzeko bide errazten digu. Augusto Boalek irakatsitakoa berriz gogora ekarriko dugu: beste mundu bat lortu posible da (Motos, 2009). Bidean, abagune hauze erabiliko dut Boalen (2009) ondorengo hitz hauek azpimarratzeko: **“Ciudadano no es aquel que vive en sociedad, ciudadano es aquel que la transforma”**. Esaldi eraginkor horrekin amaiera emanez, helburuak, metodologia eta osagaiak mahaigaineratu ditugu. Hurrengo pausua, beraz, antzezlan bat sortzea litzateke. Oso bide pertsonala hartu dut, bai, baina momentu honetan nahikoa indar badaukatelako izan da, ezinbestean, perspektibatik begiratu ahal izateko; nahiz eta emozio ezberdinek zurrumbilo txikitxo bat eragin ere eragin didaten barnean.

## **2. MARKO TEORIKOA.**

*Aizu, neska! Ez zaude bakarrik antzezlan sortzeko ezinbestekoa izan da marko teorikoa beharrezko osagaiez hornitzea. Landuko dudak barrutia azaltzeko, hortaz, bi zatitan banatuko dut markoa. Lehenengo zatian Antzerki Foroarekin lotutako informazio metodologikoa izango dugu, eta bigarrenik antzerkian landuko diren gaien alderdi teorikoa.*

### **2.1 Zapalduen antzerkia**

#### **2.1.1. Sarrera.**

Zapalduaren Antzerkiaren teoria, estetika eta teknika bere erbestealdi politikoan 1971 eta 1986 urteen artean sortu zuen, Argentina eta Perun, batez ere, “para otorgar la palabra a las clases oprimidas y a todos aquellos quienes son oprimidos en el interior de éstas” (Motos, 2009). 1976. urtean Portugalera joan zen, eta bertan *Milagro en Brasil* (1979) liburu autobiografikoa idatzi zuen, kartzelan bizitako egunak eta jasandako torturak kontatzen ditu bertan. Bere egonaldirik luzeena Frantzia izan zen,

non Sorbonan irakasten egon zen eta Parisko *Centre de Théâtre de l'Opprimé* sortu zuen. 1986ko erdialdean Boal Brasilera itzuli zen behin betiko, 15 urteko erbestealdiaren ondoren Rio de Janeiron sustraitu zen. Bestalde, Doktore *honoris causa* izendatua izan zen 20 unibertsitateetan; Nóbel de la Paz sarirako izendatua izan zen 2008an; 2009ko martxoan Munduko Antzerki Enbaxadore izendatu zuten UNESCOren eskutik.

Boalen lanetan arakatu ondoren Paulo Freire pedagogoaren influentzia eta Konstantín Stanislavski antzerkigilearena igar daitezke. Bigarren adituari erreferentzia txiki bat eginez, honela dio “El teatro es el arte de reflejar la vida. El teatro, como expresó Nerón, es un mar de fuerzas humanas. Esta idea, a pesar de los siglos que han pasado desde los tiempos de Nerón, sigue siendo válida en la actualidad” (M<sup>a</sup> Laura Fernández eta Isabel Montero, 2012, 23. or).


Sarrera hau itxi aurretik, oso baliagarri izan zaizkidan Boalen hitz hauek ekarri nahi ditut hona: “Somos todos artistas: haciendo teatro, aprendemos a ver aquello que resalta a los ojos, pero que somos incapaces de ver al estar tan habituados a mirarlo. Lo que nos es familiar se convierte en invisible: hacer teatro, al contrario, ilumina el escenario de nuestra vida cotidiana” (Boal, 2009).

### **2.1.2. Motak eta erabilgarritasunak.**

Zapalduaren Antzerkia, Tomás Motos adituak (Motos, 2009) bildutako informazioaren arabera, formulazio teorikoa eta metodo estetikoa da, arte mota ezberdinetan oinarritua eta ez antzerkian bakarrik. Antzerkiko ariketa, jolas eta teknika multzo bat biltzen du, bere praktikatzaileen desmekanizazio fisiko eta intelektuala helburu dituen, baita antzerkiaren demokratizazioa ere. Horrez gain, antzerkia eta teknika dramatikoak tresna eraginkor gisa erabiltzea du helburu, arazo sozialak nahiz pertsona norbanakoen artekoak ulertzeko eta horiei alternatibak bilatzeko. Parte hartzaile ez-aktoreei beren eguneroko zapalkuntza-egoeretako bizipenak antzerkiaren bidez adierazteko abagune litzateke. Beraz, bere inplikazio pedagogiko, sozial, kultural, politiko eta terapeutikoetatik ikuslea aktore bihurtzea proposatzen da. Aldi berean, ekintza dramatikoaren protagonista (sortzailea bera) bere iraganari buruz hausnartzera, egungo errealitatea aldatzera eta etorkizuna sortzera hauspotzen du. Ikusleak ikusi besterik ez du egiten; aktore-antzezleak, berriz, ikusi eta antzeztu egiten du, baina haratago doa, eszenan interpretatzeaz gain bizitzako esparruetan jarduteko tresnak emango baitizkio (Boal, 1980).

Eztabaidaren mamia komunitateetan pairatzen diren hainbat injustizia izan daitezke, hala nola diskriminazioa, aurreiritziak, indarkeria matxista, intolerantzia, arrazakeria, etab. Eta, aipatu bezala, horiei buruz gogoeta egin eta aurre egiteko tresnak eskaintzen dizkigu. “Zapalduaren Antzerkiaren helburua ez da oreka lasaigarrira iristea, ekintzara daraman desorekara baizik. Dinamizatzea du xede. Hori ekintza zehatzaren bidez lortzen da eszenan: eraldatzeko den ekintza eraldatzailea da bere horretan. Eszena transformatuz transformatzen naiz ni neu” (Boal, El Arco Iris del Deseo, 2004, 95. or.). Malgutasuna bere egin duen ezaugarria izanik, bereizgarri egiten dio. Horri esker, gaur egun, sistema estetiko eta praktikoa da. Adituen arabera, “antzerkia, terapia, aktibismoa, eta hezkuntza integratzen duen eredua da” (Cohen-Cruz eta Schutzman, 2002, 15. or.).

Motak izendatze aldera, Augusto Boal sortzaileak, momentuan momentuko beharrei erantzuteko tresna gisa, sistema ezberdinak garatu zituen. Hauexek dira guztira muskildutako modalitateak: Teatro Periodístico: un teatro de urgencia, Teatro Invisible: activismo político; Teatro de la Imagen: el lenguaje del cuerpo; Teatro Foro: hacia un teatro de liberación; el Arco Iris del Deseo: teatro y terapia; Teatro Legislativo: el deseo convertido en ley; Estética del Oprimido: más allá de los límites del teatro (Motos, 2009). Azken modalitatea azaltzeko Boal sortzaileak zuhaitzaren metafora erabiltzen du:





### 2.1.3. Baliabide teatralak eta estetikoak: beroketak, jolasak eta dinamikak.

Antzeztu aurreko prestaketek berebiziko garrantzia dute modalitate honetan. Eta oraintxe azalduko dudan moduan badauka bai logika. M<sup>a</sup> Lara Fernandez eta Isabel Montero (2012, 145. or.) antzerkigile adituek azaldu bezala “bizitzan ezarritako kontaktuetatik sentsazio fisiko zein emozionalak inprimatzen dira, eta sentsazio horiek gure pertsona, izaera eta izatea eratzten dute”. Boalek dioenez berriz, bizitzan zehar gure zentzumenen bidez izandako kontaktu nahiz bizipenek nolabaiteko patrioiak barneratzera garamatza. “Zentzumenek sortutako egituraketa eta hautaketa prozesu honek mekanizaziora darama, zentzumenek jasotako estimuluak beti modu berean egituratzen dituztelako” (Boal, 2002). Horrenbestez, aktoreek patrioi edo inertzia horiez kanpo esperimendatzeko bide eman behar zaie, hartara, espresatzeko eta sentitzeko gaitasuna ugalduko baitute. Horretarako beroketak, dinamikak eta nola ez, jolasak ditugu tresna aski emankorrak.

Jolasa. Ez dago dudarik ikasketa eta ezagutza prozesuan jolasaren paper ezinbestekoa. Gainera, “jolasak errealitatearen eta fantasiaren arteko tartean kokatzen du pertsona. Jolasek proposatzen duten unibertso imajinarioak ohiko bide eta erantzunetatik urruntzen gaitu” (M<sup>a</sup> L. Fernández eta I. Montero, 2012). Jolasak, beraz, emozioak esnatzeko akuilu dira, hemen eta oraingo bizipenei zentzua ematen ere ematen diena. Antzerkia joko bilakatuz gero, haurrek joko sinbolikoan transformatzen diren bezala (astronauta, lehoia, sukaldaria...), sentitzean zentratuko ginateke, eta ez teknika ikastea ( M<sup>a</sup> Laura Fernández eta Isabel Montero, 2012):

Nuestra primera propuesta fue valorar la emoción, hacerla esencial y prioritaria, para que ella pudiese determinar, libremente, la forma final. No queríamos valorar lo que llamaban en aquella época *técnica*, es decir, representar sin sentir realmente nada de lo que se representaba. Queríamos sentir (Boal, 2002, 103. or.).

Bestela esanda, Peter Brook zuzendari aski ezagunaren hitzak ditugu, “interpretatzeak esfortzu handia dakar, baina jolasa bihurtzen dugun heinean lana izateari uzten dio. Antzerki obra bera jolas bat da” (Brook en Mascaró, 2001).

Joko edo ariketen zerrenda hain oparoa izanik, multzo orokorrak aipatuko ditut, hala nola ariketa muskularrak (nork bere muskuluen kontzientzia har dezan); zentzumen ariketak (musika erritmoak, dastamena, etab.); memoria ariketak (egunean egindako

guztiz oroitu); irudimena lantzeko ariketak (istorio bat kontatu); emozioen ariketak (transferentzia: norberak noizbait bizitutakoarekin lotu, hau da, gogora ekarri eta bertan birbizitu, "memoria emotiva" litzateke ekintza hori). Azken alor horretan, berebiziko garrantzia eman dio emozioen arrazionalizazioari. Aktoreek ezin dute lan egin emoziorik gabe baina arrazionaltasunik gabe ezta ere, biak bana ezinak dira, bata bestea behar baitu, bi noranzkoetan.

#### 2.1.4. Antzerki Foroa.

Modalitate horixe izango da *Aizu, neska! Ez zaude bakarrik!* antzerkia sortzeko erabiliko den hezurdura, Zapalduen Antzerkiko muskil honako hau eraldatzailea eta hezitzailea izanik (Motos, 2009). Jorratzen diren gaiak komunitatean pairatzen diren zapalkuntza ezberdinak izan daitezke. Taldea ezinbestekoa da, hortaz. Ezaugarriak zerrendatzen jarraitzeko, eszenan garbi ikusi behar da zein zapalkuntza bizi duten, ezinbestean. Estetikoki garbia izan behar du, hau da, erakargarria, gustagarria, ikuslea erakarra sentitzeko (Motos, 2009). Ezaugarri bereizgarriena ikusleen parte hartzea izango litzateke. Parte-hartze aktiboa errazteko benetan aproposa baitugu A. F., gizarte-arauak ikusarazteko, eguneroko egoera zapaltzaileak identifikatzeko eta zapalkuntza horiei aurre egiteko estrategiak garatzeko duen ahalmenagatik, batik bat (Gil-Juárez, Feliu, Vall-Ilovera, eta Biglia, 2013). Testuinguru horretan, ez gara hitzean bakarrik zentratzen, hau da, gorputza txertatzen diogu ekintzari. Hala bada, ideia bat adierazteko gorputza eta jarduketa eransteak esperientzia sakonagoa eta esanguratsagoa izatea ahalbidetzen du, plano arrazionala gaindituz eta parte-hartzaileen emozioetara iritsiz (Lucía Calleja, 2018, 2. or.).

Funtzionamenduan gehiago sakontze aldera, Tomás Motos adituak azaldu bezala, ikuskizuna antzeztu ondoren ikusleek parte hartu dezakete eta antzezlaneko aktore bihurtu. Prozedura oso erraza da: taldeko kide batek, *Joker*-ak zehazki (aretoko animatzaile lanak egiten dituen) ozen "Stop" esango du ikusleen artean norbaitek eskua altxatzen duenean, ikusleak bere ikuspuntua uneko eszenaren gainean adierazi nahi duelako; orduan, eszenara joaten da eta eszenatokian antzezlea ordezkatzeko gonbita egiten zaio. Ikusleak parte hartzera hauspotzeko, ordea, bi gauza dira beharrezkoak. Lehena, obran proposatutako gaia haren intereskoa izatea. Eta bigarrena, jolas eta ariketekin berotu behar da aurrez (Motos, 2009, 6. or.). Garrantzitsua da, beraz, aurreko beroketa jolasetan parte hartzea, gorputza eta burua aktibatu eta bat-batekotasunari bidea samurtzeko.

Halaber, azken lerroetako hariari jarraiki, ezinbestekoa da ikuslea ekintza dramatikoaren protagonista izatea, ondoren, bere bizitzan paper hori mantendu dezan (Motos, 2009, 6. or.). Horrenbestez, “antzerkia askapenerako arma gisa erabiltzen da, gizabanakoengan kontzientzia soziala eta politikoa garatzeko helburuarekin” (Motos, 2009, 6. or.). Antzerki mota honen helburua argi izanik, irtenbide egoki bat aurkitzean, gerta daiteke testuinguru edo norbanako guztien kasuetan aplikagarria ez izatea hori bera, hortaz, garrantzitsuena eztabaida on batera iristea da (Motos, 2009, 7. or.).

Azkenik, honela dio Motos adituak bere maisutasun lanean:

El Teatro Foro es una reflexión sobre la realidad y un ensayo para acciones futuras. En el presente volvemos a vivir el pasado para crear el futuro. El espec-actor sube al escenario y ensaya lo que podría ser posible hacer en la vida real (Motos, 2009, 41. or ).

Beraz, Boalen hitz hauek gehituta “ez da antzinako antzerki didaktikoa; aitzitik, pedagogikoa da, denok elkarrekin ikasten dugulako, aktore nahiz ikusleok”. (Boal, 2002, 69. or.).

Gaur egun milaka dira erabilpenen arrazoiak edo helburuak, testuinguru mota desberdinetan (antzokiak, plazak, espetxeak, egoitzak, etab.). Gaiak askotarikoak izan dira, hala nola arrazakeria, genero berdintasuna, indarkeria, bullying-a... Estatu mailan 3 gai jorratu dira gehien: genero-arrakala, ziberjazarpena eta genero indarkeria bikote harremanetan (Lucía Calleja, 2018, 2. or.).

Hurbileko adibide gisa, *Baketik* elkartearen ekarpena dugu eredu. Tolosan sortua, 2007. urteaz geroztik Antzerki Foroaren metodologia erabili du transformazio pertsonal nahiz sozialetarako. Haur zein gazteen sentsibilizazioa izan dute ardatz, hainbat gai potolo landuz, hala nola jazarpena, arrazakeria, alkohol kontsumoa, bide-hezkuntza, emakumeen eta gizonen arteko aniztasuna eta berdintasuna, bizikidetzeta eta adiskidetzeta, etab. (Baketik, 2007).

## **2.2. Genero indarkeria. Landuko diren gaien teorizazioa**

### **2.2.1. Sarrera.**

Bigarren atal honi hasiera emateko asmoz, jorrazeko hautatu dudan gai orokorra emakumearen gaineko indarkeria da. Barruti hori oso zabala eta anitza denez, neuk bizi izandakoak izango ditut hizpide. Horretarako baditugu feminismoak<sup>2</sup> salatu eta azaltzen dituen zenbait praktika eta kontzeptu mahaigaineratu beharrak.

### 2.2.2. Gaiak eta kontzeptuak

Lehenik eta behin, feminismoak eskaintzen dizkigun betaurrekoetatik genero indarkeriaren definizioa dugu, esan beharra dago asko dituela, baina kasu honetan ONU erakundearena ekarriko dut, 1994. urtean 2. artikuluan, honela dio: “todo acto de violencia basado en el género que resulte, o pueda tener como resultado, un daño físico, sexual o psicológico, incluyendo las amenazas de tales actos, la coacción o la privación arbitraria de libertad, tanto si se producen en la vida pública como en la privada” (Lucía Calleja, 2018. 6. or.). Horrez gain, berebiziko garrantzia du azpimarratzeak emakumearekiko indarkeria ez dela erasoetara mugatzen, haratago doa, hau da, azken finean harremanak eraikitzeko modu bat da indarkeria, non biztanleria zati bati pribilegioak ematen dizkion, eta botere harreman hori eusteko ahaleginak egiten ditu etengabe, emakumea erasotuz mendean hartzeko (Emakunde, 2020, 7. or.). Definizioa hornitzeko asmoz, azkenengo ideari atxikirik, testuinguruak hartuko ditugu kontuan. Izan ere, bikotekide edo bikotekide ohiaren eremutik haratago doan kontzeptu zabala eta konplexua dugu. Hala nola emakumeak indarkeriaren jomuga dira familian, komunitatean, Estatuan, gatazka armatutan... (Emakunde, 2020, 9. or.).

Hurrengoa indarkeria sexuala dugu:

Es aquella violencia que comprende cualquier agresión que suponga la utilización del cuerpo de las mujeres contra su voluntad. Supone a la vez una agresión física y un ultraje psíquico que atenta contra la libertad sexual de la persona. Incluye conductas como agresión sexual, abuso sexual, acoso sexual, exhibicionismo, provocación sexual, corrupción de menores y pornografía de menores. También se considera como violencia sexual, la prostitución forzada, la trata de personas con fines sexuales, la mutilación genital (infibulación), así como las revisiones forzadas para ‘asegurar’ la virginidad, el no embarazo y/o la fidelidad. A menudo dicha violencia no se percibe como tal dentro de la pareja ya que muchas mujeres no reconocen que la sexualidad forzada es una

---

<sup>2</sup> Irantzu Varela (Por qué hay que ser feminista, 2020) [https://www.youtube.com/watch?v=wI5d-sR\\_vLc](https://www.youtube.com/watch?v=wI5d-sR_vLc)

violación, por eso, aunque es una de las prácticas más habituales de la violencia contra las mujeres, es de las menos denunciadas a nivel mundial (Emakunde, 2020, 10. or.).

Azken definizio horretan kokatu da abusu sexuala. Ondorengo lerroetan alderdi honetan sakonduko dugunez, hura definitzea ere ezinbesteko dugu. Abusu sexuala, hortaz, “sexu-izaerako jokabideak indarkeria edo larderia erabili gabe egitea da. Kode penalak bereizi egiten ditu baimenik gabeko abusuak eta engainua edo prebalentzia” (Emakunde, 2020, 11. or.).

Azken atal horretan, aldiz, badugu zer erantsi, eta gainera landuko dugun gairako funtsezkoa izango da, hor baitago koska: nahasmenaren (confusión) fenomenoaren abusu sexualaren definizioaren parte dugu, “kontaktu fisikoa izan dezakeena ala ez, larderia izan dezakeena ala ez, baina beti baimenik gabea” (Aitana Vaquer, 2017, 17. or.).

“Consentimiento”, hots, onespina hitz garrantzitsu eta klabea izango den honetan, datorren ildoan hari eskainiko diogu. Zehazki Clara Serraren hitzak erabiliko ditugu, argi eta garbi azaltzen du nahasmendurik ez gertatzeko zein diren jakin beharrekoak. Lehenik eta behin, desioa eta onespina bereizi egiten ditu. Sexu grina eta onespina ez dute kontzeptu bera islatzen:

Conservar la posibilidad de distinguirlos, de que no coincidan entre sí o, incluso, de que se opongan. Porque el patriarcado ha anulado y censurado los *deseos* de las mujeres, pero también –incluso diría que prioritariamente– ha anulado la *voluntad* de las mujeres.

Una mujer puede decir “sí” al sexo y no desearlo sin que eso sea una agresión sexual. Estaríamos no reconociendo a las mujeres la posibilidad de tomar decisiones *a pesar de* sus deseos o incluso *contra* ellos. Tratar a las mujeres como libres y mayores de edad implica entender que son capaces de decidir, allí donde decidir puede significar oponerse a muchas fuerzas o inercias: las costumbres sociales... o incluso, los propios deseos. El deseo no se elige ni es fruto de nuestra decisión y nuestra voluntad, una voluntad que, precisamente por eso, puede oponerse a él. [...] Cuando se viola a una mujer no se viola su deseo, se viola su voluntad. A esa voluntad la denominamos con palabras como *consentimiento*, *acuerdo* o *decisión*, y se expresa cuando decimos “no” y cuando decimos “sí” (Clara Serra, 2018).

Onespen edo erabakitze gaitasun hori berreskuratzean dago funtsa, beraz: Teresa Cabrujak (2021) Virginia Despentesi esakinitako atalean azaldu duen bezala “el poder

del poder hacerlo” geure egitea. Hartara, emakume gaituak eta ahaldunduak izateko, nork bere desioak esploratzen jarraitzeko libertatea geure egin (Clara Serra, 2021).

Gaiari itxiera emateko, “1949.urtean Simone de Beauvoirek “Le deuxième sexe” (Bigarren Sexua) liburuan “Emakumea, egin egiten da” adierazi zuen. Ideia horrekin emakumearen eraikuntza sozialaz ari zen, eta beranduago, 70. hamarkadan teoria feministak *genero* kontzeptua erabiltzen hasi ziren, emakumetasuna eta gizontasuna jendarteak sexuaren gainean ezarritako ezaugarri multzo bat bezala ulertzen zen (Euskal Herriko Bilgune Feminista, 2014). Beraz, bai generoa baita sexua ere, eraikuntza soziokulturala direla baieztatu genezake” (E.H.B.F., 2014, 5. or.).

Azken argipen beharrezkoaren ondoren, jada, erasoen bueltan ikusitakoarekin, baieztatu daiteke motak anitzak direla eta ez duela zertan beti indarkeria fisikoa tarteko egon beharrik, ezta agresibitatekerik, mespretxurik, edota irainik. Gertaerak askoz ere ikusezinoak suertatu daitezke, eta ondorioz, egoera difusioak dakartza. Brigitte Vasallo adituak honela dio lanbroaren ondorioz identifikatzen zailak diren horietaz:

Geure buruaren funtzionamenduak etsaia zein eta nolakoa den argi duenean hobeto erantzuten du, etsaia “naturala” denean nolabait aurreikusi eta lasaitu egiten gara, antza kontrolatzen dugulako egoera; erne, horrek ez du esan nahi potentzia edo eragin gutxiago duenik zeren eta ondorio fisiko, animiko eta abar dakartza, jakina; baina indarkeria espero gabeko ingurutik, hau da, zergatik heltzen zaigun ulertu ezin dugun inguruetatik datorrenean, ezegonkortasun handia sorrarazten digu (Vasallo, 2020).

Azken ekarpen horri lotuta, arrazoimenaren eta sentimenduen arteko erlazioa aipatu nahiko nuke. Gure gizartean, oraindik orain, arrazoiaren sentimenduen gainetik ulertzen da. Hots, ezin bada azaldu hitzekin eta logikoki ulertu, orduan ez da existitzen. Hortaz, nahiz eta gertaera sentitu, ez badugu arrazionalki ulertzen ez da pasatu? Hona hemen fenomeno horren gaineko Vasalloren azalpena: askotan ezin ditugu hitzak jarri sentitzen diogunari, beraz baztertu egiten dugu; arazoa sentimenduak arrazionalizazioaren azpitik jartzean dago, hierarkizazio horrek dakar kaltea. Nahiz eta ezin dugun definitu hitzekin, sentitzen ari gara, beraz pasatzen ari da. Arrazoiak ez du gutxietsi behar sentimendua (Brigitte Vasallo, 2020).

Azken gai potolo hori oraingoan alde batera utzita, hurrengoari helduko diogu. Oraingoan emakumeon gorputzak izango ditugu hizpide, antzerkian azalduko den gaietako bat izango baitugu. Hasteko, beraz, oro har emakume eta gizonen gorputzen

gaineneko mezuak eta ideiak desberdinak izan direla azalduko dugu, ongi daki Mari Luz Esteban adituak “Gorputzaren irudiari eta generoari heldu dioten egile gehienek gizonen eta emakumeen errealtatea bereizi dute (Mari Luz Esteban, 2013, 77. or.). Emakumeek etengabe jasotzen ditugun mezuen intentsioa agerian jarri dute hainbat adituk, estetika eta konsumoaren atzaparretan edukitzeko, desioaren objektu izateaz gain, honela ulertzen dute gorputza: “status, gazteria, osasuna, energia eta mugikortasunaren ikurra, dietak eta ariketa egokiek diziplinatu ondoren” (Callinicos, 1993, 83. or.). Foucaultek (1992), berriz, honela azaltzen du:

Esto se comprueba sobre todo en el funcionamiento y fines de ciertas instituciones (hospitales, ejército, escuelas, etc.), que surgen con un afán de regulación y control social de la población y el individuo a través de su cuerpo (de sumisión, en definitiva), sin perder nunca de vista el objetivo último que es la consecución de personas productivas (Foucault en Mari Luz Esteban, 2013, 72. or.).

Kanonak ere zehaztuak ditugu, baina oso modu ezberdinetan eragiten dute generoaren arabera:

Los objetivos principales del aprendizaje corporal de las mujeres son la reproducción y la seducción. Esta instrumentalización diferenciada hace que el cuerpo de las mujeres esté bajo la mirada constante de la sociedad, mientras que el cuerpo del hombre, en la medida en que no necesita ser expresión, sino instrumento, no padece de la misma manera el efecto de las normas de belleza, la moda en el vestir, la necesidad del arreglo constante, las dietas de adelgazamiento o engorde, los efectos de la cirugía estética, etc., por lo que las mujeres salen perjudicadas (Dostie, 1988, p. 81).

Azkenengo leiho sendoa irekitze aldera, maskulinitate berrien gaiari helduko diogu. Egia da jada ez dela hain kontzeptu berria, baina, oraindik orain, honela izendatu eta identifikatzen dira (Otxotorena, 2018).

Mikel Otxotorena soziologoak diotenaren arabera, azken urteotan sortu den kontzeptua da, herrialde aberastuetan edota mendebaldarretan kokatua eta hainbat diskurtso sortu dituen gizartean nahiz eremu akademikoan. Honako irudi berriak dakartza, adibidez: gizon sentibera berria, aita berria, familiako gizon berria, etab. Gizon asko identifikatu

da mintzaldi horiekin. Gakoa, ordea, ez dago hor, baizik eta zertarako<sup>3</sup> sortua izan den jakitean (Otxotorena, 2018):

Diskurtso eta erretorika hori sortu da, ez hainbeste gizonek berdintasunerantz egiteko aldatu nahi dutelako, baizik eta iruditeria sozialari buruzko estrategia mediatiko gisa, gizonaren gorespenean, emakumeen aldaketarako premian, patriarkatua modernizatzeko estrategietan edota merkatuaren premietan oinarrituta. Sexismoaren aurkako gizonen kolektiboak arrazoibide horiek zer ezkututzen duten ikusten saiatu dira; izan ere, berdintasunaren aldeko diskurtso baten azpian, sistema patriarkal hegemonikoaren arauak mozorrotzen baitituzte, horrela, berdintasun eza betikotzeko<sup>4</sup>. Hori bai, politikoki zuzenaren barnizaren azpian.... Adibide bat jartzearren, «gizon sentibera» esaten dena asko hurbiltzen da sozialki femenino gisa ulertzen den horretara. Baina horrek ez du esan nahi berdintasunera hurbiltzen denik. Hala, hierarkia bat sortzen du gizon gaiztoen (gizon gogorra ordezkatzeko dutenak) eta gizon onen artean (sentiberak, afektiboak, dibertsitatea maite dutenak, kontsumitzaileak, nartzisistak...). Izan ere, gogoeta egiten, jarduten, partekatzen edo militante gisa saiatzen den gizon-talde batean parte hartzeak ez du, automatikoki, sexismotik askatzen duen igaro-baimen bat sortzen. Ez genuke fidatu behar beren burua matxistatzat ez daukaten gizon horiez, orain arte ez baitago, neurri handiagoan edo txikiagoan, jarrera eta balio matxistarik ez duen gizonik (Otxotorena, 2018).



<sup>3</sup> Irantzu Varela ("not all men", 2018)  
<https://www.youtube.com/watch?v=wWT9TfqDBQ0&t=35s>

<sup>4</sup> Irantzu Varela ("Aliados" del feminismo, 2018)  
<https://www.youtube.com/watch?v=cFn2deOfPTM&t=4s>



Hala ere, azkeneko baieztapenaren harira, emakumezkoaren kasuan bezala, Michael Kimmel-ek (1997) gizonezkoen generoa eta sexualitatea ere eraikuntza soziala dela azaltzen du, ez dela esentziala, ezta denboraz kanpoko ere, ibilbide historia baitu bere bizkar (Otxotorena, 2018).

Azken leihoa ireki ondoren ixtea besterik ez zaigu geratzen, baina berriz ere irekitzeko prest utziko dugu; hori beranduxeago izango da, ordea. Marko teorikoari bukaera emanez, beraz, hurrengo atalari ekingo diogu.

### 3. JUSTIFIKAZIOA

Bikote eremutik at ditugun harreman heterosexualekin zer pasatzen da? Nola identifikatu eraso gure bikotekidea ez den lagun batengandik? Hutsunea nabarmena da, eta gaur egun astintzen ari garen eremuak, harreman berriak, horizontalagoak, irekiak, zaintza erdigunean dutenak, lagun artekoak, maskulinitate berriak eta abar bezalako diskurtso nahiz praktikan ez da izaten hain agerikoa abusua edo indarkeria. Dena difusoago baitauekagu. Berebiziko gaia iruditzen zait, hasteko, goragoko lerroetan aipatu bezala, hain "matxunoak" ez diren maskulinitateak, hau da, aliatuak sentitzen direnak, feministak, ezkertiarak, irekiak, enpatikoak, maitekorrak (kariñosoak), etab. geroz eta ugariagoak baitira. Baina, nola identifikatu horrelako ezaugarriak dituen mutil batengandik eraso? Non dago muga?

Ez dugunez betiko ezaugarriekin erlazionatzen haien jokaerak nahasmendua sor lezake, eta ez dugu hain argi ikusten gertatutako gauza arraro hori, hots, gorputzean geratu den sentazio oso deseroso hori, onespenerik gabeko eraso edo abusu bat izan zitekeenik. Gazteenek osatzen duten

Nire iritziz, erasotzailearen perfil hori ongi irabiatzeko beharra daukagula, ongi ezagutzeko. Batez ere gaztetxoan artean, baina nerabezaroa erabat iraungia denean, hau da, batxilergoan eta unibertsitatean ematen diren urte horietan, 17 eta 24 urteen artean aproposa. Halere, bestelako adin tartetan ere joratu daitezke nik hautatutako gaiak, jakina, saretzeak ez baitauek mugarik.

Datuak mahai gainera ekarriz, Emakundek plazaratutakoan arabera, indarkeria sexualaren ehunekoak gora egin du azken urteotan, gainera, indarkeria adin guztietako emakumeek pairatu dutela ziurtatzen du. 2019an indarkeria jasan zuten emakumezkoen ia %39ak 30 urte edo gutxiago zuten. Indarkeria sexualari

dagokionean, biktima izan ziren %22,3a adin txikikoak ziren, 14 eta 17 urte artekoak. Hori bakarrik ez, oro har, adin txikiko emakumeak 2019. urteko genero indarkeria biktimen %40a osatzen dute. Horrenbestez, Emakundek diotenaren arabera, eraso sexualen aurrean adinez gazteenak diren emakumeek osatzen dute talderik zaurgarriena, 21 eta 30 urte arteko gazteen kasuan ere %21.3a eraso sexualen biktima izan baitira. Azken datuekin alderatuta, mota guztietako indarkerien ehunekoek gora egin dutela baieztatzen dute; horien artean gorakada handiena familia eremutik kanpo eman diren eraso sexualetan nabarmendu dute (Emakunde, 2020).

Euskadiko emaitzak ekarriz gero:

A lo largo del año 2019 la Ertzaintza registró en la CAE 3.098 mujeres que fueron agredidas por su pareja o expareja, otras 899 mujeres que fueron víctimas de violencia por parte de algún otro hombre de su familia y 422 mujeres más que sufrieron violencia sexual fuera del ámbito familiar. En total 4.419 mujeres víctimas de violencia contra las mujeres en el periodo de un año (175 mujeres más que en 2018). Algunas mujeres son agredidas en más de una ocasión a lo largo de un mismo año. En total a lo largo de todo el año 2019, se contabilizaron 5.518 victimizaciones por violencia contra las mujeres (203 más que en 2018) (Emakunde, 2020).

Datuak horiek izanik, seriotasun handiz hartu beharreko gaitza dugu. Unibertsitatera mundua jateko prest goaz, baina unibertsitateetan ez dago inolako kontzientziaziorik, ez ahalduzko tailerrik, ezta autodefentsarako formakuntzarik ere. Hutsunea itzela denez, Antzerki Foruma tresna ezin hobea litzateke indarkeria eta abusu horiek plazaratu eta gorpuzteko. Modu horretan, identifikatu eta espero ez dugun eremuetatik eratorritako erasoak non hasten den sentitu eta ulertzen lagunduko baitiogu elkarri. Are gehiago, aipatutako sare hori ehuntzen jarraitzeko bide emango digu.

## **4. ALDERDI PRAKTIKOA**

### **4.1. Zein da antzezlanaren jatorria? Zein testuinguru du?**

Jatorria azaltze aldera, gidoia sortzeko orduan, nire bizipenak izan ditut abiapuntu. Agertzen den guztia, beraz, egia da, benetan gertatu zitzaidan eta izan zen bezala kontatzen dut, gidoiaren forma emateko aldaketa txiki batzuek beharrezko izan zaizkidan arren. Hala ere, bizipen hauek parte hartzen dudana talde feministan, eta

beste lagunekin partekatu izan nituen, ea horrelakorik bizi izan duten jakiteko, niri bakarrik gertatutako zerbait ez zela berresteko. Eta jakina, denek identifikatzen zuten pertsonaia estereotipo hori: ezker abertzaleko intelektual “femilistoa”<sup>5</sup>, maskulinitate berri sentikorra duena, baina fatxadaz soilik. Nire lagunek bizipenak ezberdinak izan dituzte, denetik egon da, baina erasotzailearen izaera eta irudia identifikatzen zuten. Esanak esan, abiapuntua, hortaz, barnekoa izan da.

Testuinguruari dagokionean, unibertsitateko garaian kokatzen da, lehenengo urtean zehazki. Urte hori berezia da, etxetik kanpo bizitza eraikitzea independentziaren magalean, lagun berriak, jende berria, “ligoteo” garaia, etab.; norberaren irudi berri bat eraikitzeko aukera ere ematen diguna, inguru berri batean baikaude eta esperimentatzeko aukera ematen digu horrek. Bestela esanda, nork bere burua ezagutzeko eta garatzeko bide ematen digu, agian ordura arte ezezagunak ziren alorretan; ondorioz, nolabait idealizatu egiten dugu bizitzako etapa hori, neure burua inoiz baino indartsuago ikusten nuelarik, ni berri baten hasiera izan zitekeen horretan. Nire kasuan, behinik behin, horrela gertatu zen.

Tamalez, gidoian kontatzen dudana bezalako gertakizunek munduaren funtzionamendua berdina dela ikusarazi zidaten, indarrean gogoraraziz zein posizio egozten zaidan, alegia, emakumezkoa han eta hemen. Are okerrago izan daiteke, ordea, inguru berri batean gertatzea eraso, ez baikaude etxean, geure inguru hurbil eta konfiantzakoaren gerizpean, beraz, ez daukagu betiko babes hori.

Baina unibertsitario gazte, aurrerakoi, eta abertzaleen artean gertatzen da? Benetan?

Ba, bai. Unibertsitateko urteetan, nire ustez, gehiago bistaratu beharko lirateke honelako egoerak, ez beldurrez bizitzeko, jakina, ezta etengabe horretan pentsatzeko ere, baina bai baliabideak edukitzeko, lehenik eta behin, identifikatu, eta, ondoren, erantzuteko. Egoerak oso ezberdinak eta ugariak izan daitezke, nirearen kasuan maskulinitate berrietan dago fokoa: intelektual, sentikor, eta ezkertiarra izateagatik, parekide gisa aurkezteagatik, ez du esan nahi bere posizioak dakarren boterea edo pribilegioak bere alde erabiliko ez dituenik. Eta nahiz eta konfiantzatik hurbildu, eremu seguru bat eraikiz, hau da, lagun izatearen perfiletik hurbildu, eta ez sexurako grinatik, erasoak egon daitezke. Bortxa pairatzen ari garen momentuan ez da inoiz jakiten nola erantzungo dugun, baina hor dago erronka, ondorengo pausuei jarri behar dizkiegu baliabideak. Horretarako, zapalkuntza horien berri izatea ezinbestekoa da.

---

<sup>5</sup> Femilistoa estereotipoaren parodia adi bide gisa:  
<https://www.youtube.com/watch?v=JZnUhQGtog0&t=4s>

## 4.2. Aurre-beroketarako jolasak ikusle-aktoreekin

Lehenik eta behin, publikoa zehazte aldera, edozein heldurentzako balioko lukeela iruditzen zait, baina zehaztu beharko banuke, batxilergotik hasi eta unibertsitatean dauden gazteekin landuko nuke. Adin horretan jada badute feminismoa eta genero indarkeriaren berri, agian batzuek besteek baino era sakonago batean, baina denen aho-belarrietan egon diren gaiak direla esango nuke. Aipatu bezala, adin horretan zentratuko nintzateke, 18 urtetik gorako gazteengan. Beraz, unibertsitateetan lantzeko proposa dugu.

Proposatuko ditudan ariketei eta jolasei dagokienez, pausoka-pausoka azalduko ditut, haien garrantzia eta arrazoibidea ere azalduz. Hasteko, bada, gure gorputzeko mugimenduak oso mekanizatuak eta ikasiak ditugu, eta ondorioz, patrioi batzuk errepikatzen ditugu etengabe (Boal, Juegos para actores y no actores, 2002, 103. Or.). Muskulazioa automatizatua dugun honetan, ohikoa den legez, bestelako mugimenduei atarramendua emateko eta ilunpean lokartuak ditugun emozioen, sentsazioen, zentzumenen, imajinazio nahiz oroitzapenen haitzuloetan argi izpiak sartzeko, laburtuz, argiztatzeko helburuarekin, jolasak egingo ditugu, malgutasun intelektuala lortzeko, besteak beste (Bueno, 2018).

Parte hartzera etorri diren guztiekin (antzerkia egingo duten aktore eta publikoan egongo diren *espect-actore*-ak) arestian esan bezala, geure gorputzaren, emozioen eta gaitasunen kontzientziak lantzeko ariketa edo joko batzuk egingo ditugu, besteak beste. Azalpenetarako eta gidari gisa dinamizatzailer bat edukiko dugu:

1. ARIKETA. Borobil bat osatuko dugu zutik gaudela. Dinamizatzailer hasita (ni izango naiz kasu honetan), nor bere burua aurkeztu beharko du borobilaren ordena jarraituz. Izena esango dugu, baina izenarekin batera mugimendu bat egingo dugu. Hau da, "Maddi" esaten dudana bitartean, mugimendu bat erantsiko diot, adibidez, tiranahiak (esnatu berritan egiten diren estiramenduak) egingo ditut. Norberarena egin ostean, beste taldekide guztiek berdina errepikatu beharko dute, bere izena eta mugimendua. Horrela denek egin arte. Aurreko kideek egindakoa gehituz edo gehitu gabe egin daiteke, hau da, memorian gordeta hasieratik hasi eta ondoren norberarena erantsi. Taldearen kopuruaren arabera aukeratu daiteke, gure kasuan, memorizatzen egingo da.
2. ARIKETA. Espazioan zehar ibiliko gara, kontzientzia ipiniz gure ibileran. 1, 2, eta 3 zenbakiak esaterakoan binaka jarriko dira ondoan dagoenarekin eta

hauxe da egin beharko duguna: 1 esaten duenean ondoan dagoen pertsona bat aukeratu eta eskua emango diogu, agurtzeko, keinu gehiegizkoarekin, gora eta behera nabarmen; 2 esaten duenean, berriz, besarkada bat emango diogu ondokoari; azkenik, 3 esandakoan hizkuntza asmatuan hitz egingo dugu, elkarrizketa bat balitz bezala.

3. ARIKETA. Binaka jarriko dira. 1 eta 2 zenbakia izango dira. Lehenengo 1 zenbakia direnek hauxe egingo dute: estralurtarrak etorri ziren eta beraien mundura eramán zuten, indarkeriarik gabeko mundua, genero arrakalarik gabea, parekidea eta anitza. Beraz, orain, 2 zenbakiari ikusi zuena deskribatuko dio minutu batean, gutxi gorabehera, nolako elkarbizitza etab. Ondoren 2 zenbakiak dantza bat sortuko du kontatu dion istorioan inspiratuta. Oraingoan berriz, 2 zenbakia hasiko da. Orainaldian nazkatzen dion egoera edo arazo bat kontatuko dio, behingoz amaitzea nahi duen eta hainbeste eragiten dion situazioa edo arazoa, zapaltzen diona edo estutzen diona. Azkenik, 1 zenbakiak entzun berri duten istorioa kantatu egin beharko dute, bi eratara, bata Disney izango da eta bestea punk modura. Bi horien artean txandakatzeko aukeraketa 2 zenbakiak egingo dute, mando bat irudikatuko dute eskuetan eta kanalez aldatzeko bezala Disney edo punk esango dute edozein momentutan, etengabe aldatzen egoteko. Beraz, aldaketak azkarrak izan daitezke edota motelak, nahi bezala jolasteko. Beste jolas bat egingo dugu estruktura berbera jarraituz. 1 zenbakiak orain dela gutxi beldurra eman dion bizipen bat kontatuko dio, beldur handia pasatu duen egun edo pasadizo bat. Hortaz, 2 zenbakiak entzun berri duen kontakizuna modu alai edo triste batean kontatuko du, 1 zenbakiak aukeratuko duelarik zein modutara mando imajinarioarekin.
4. ARIKETA. Irantzu Varelaren bideo bat ikusiko dugu non feminismoa zer den azaltzen duen<sup>6</sup>. Taldeka jarri, bosnaka adibidez, eta talde bakoitzak feminismoa irudikatuko duen argazki bat sortu beharko dute. Gorputzak erabiliz, antzerki irudia modalitatean bezala, irudi bat sortuko dute feminismoak beregain hartzen dituen praktika edo balore bat adierazteko. Milaka direnez, beraientzat esanguratsua dena aukeratuko dute. 10 minutu izango dituzte erabakitzeke zer egin.

---

<sup>6</sup> Irantzu Varela (Por qué hay que ser feminista, 2020) [https://www.youtube.com/watch?v=wI5d-sR\\_vLc](https://www.youtube.com/watch?v=wI5d-sR_vLc)

5. ARIKETA. Taldea hiru zatitan bereiziko da, bosteko taldeetan izango litzateke egokiena. Talde bakoitzak adostu egin beharko dute ondorengo presentazioa: genero indarkeriaren irudikapen desberdinak egin beharko dituzte. Zapalketa mota ezberdinak, esparru edo testuinguru ezberdinetan eman posible direnak. Talde bakoitzak irudikapen bat, argazki bat. 10 minutu izango dituzte eszena pentsatu eta bakoitzaren rola zehazteko.
6. ARIKETA. Oraingo honetan, bizipenak ekarriko ditugu epizentrora. Noizbait bizi edo ikusi izandako indarkeri matxista bat antzeztuko dute oso labur. Eszena bat egingo dute non pairatutako indarkeria bat azalduko den. 10 minutu izango dituzte rola zehaztu eta gertaera adosteko.

## 5. AZU, NESKA! EZ ZAUDE BAKARRIK ANTZERKIA.

### Gidoia:

Kolore urdina: pertsonaiek euren barruko pentsamenduez hitz egingo dutenean erabiliko da. Pentsatzen duten hori altuan esango dute. Barne pentsamenduak direla bereizteko, eskua buruaren gainaldean ezarriko dute, eskua behera begira, baina ez du burua ukituko eta beti publikoari begiratuko zaio, posturaz aldatu behar badute, esan beharrekoa esan ondoren jatorriko posturara bueltatuko dira.

### Lehenengo eszena: Mainsplaining autobusean

*Autobusean. Kolan daude bertara sartzeko zain.*

Irati: Kaixo.

Autobus gidaria: Kaixo, tiketa mesedez.

Irati: Bai, hementxe.

*Autobusean eseri eta aldamenean norbait eseri zaio.*

Xabi: kaixo! Zu Aintzanen koadrilakoa zara, ezta? Irati?

Irati: *(kolokan, nahastuta, ez daki zein den tipo hori)* Kaixo! Bai, hala naiz. Zein zara, ba?

Xabi: Ni Xabi naiz, Aintzane ezagutzen dut, lagun bastante ditugu amankomunean. Eta Glotodidaktikako formakuntza egin behar dudanez, zure berri eman zidan. Hortaz, zuk ere egin behar duzula, ez?

Irati: Bai hori da (*tonu pozgarrian*). Aintzane esan zidan bere lagun batzuk egiteko asmoa zeukatela, hortaz, zu horietako bat. Ederki! Zer zabiltza Gasteizen ikasten?

Xabi: Bai halaxe nabil. Zu ere bai, ez? Haur Hezkuntza ikasten?

Irati: Bai, aurten hasi naiz.

Xabi: Ni Euskal Filon hasi nintzen, horregatik ezagutzen dut Aintzane, baina ez nintzen horretan lan egiten ikusten, ez dit betetzen persona bezala, orduan, ba, Magisteritza aukeratu nuen. Zerbait emankorragoa-edo esanguratsuagoa egin nahi bainuen. Eta hezkuntza munduak asko deitzen zidan atentzioa. Badakit ez dugula mundua konponduko, baina irakasle on papera funtsezkoa iruditzen zait gizarteren bizikidetzan hobetzeko, zer esanik ez Hezkidetzaren alorrean. Txiki-txikitatik hezkidetzan murgildu behar ditugu haurrak, txikitxo on irakasleek ere baduzue zeregin potoloa, haurrak esponjen antzekoak dira, dena xurgatzen dute, nahiz eta iruditzen zaigun txikiak direla, bai, to! Urte horiek delikatuak dira, bizitza guztia markatuko dutenak! Eta gero, L.H.ko urteetan berebizikoa da ildo beretik jarraitzea, kontzientzia zenbat eta gazteagotatik landu orduan eta emaitza hobekoak izango ditugu. Lotsagarria da gaur egungo generoen arteko arrakala, eta indarkeria ez dut aipatu ere egin nahi, mina egiten dit eta. Beraz, badaukagu bai lan super potoloa gure gain! Hala ere, gure buruaren lanketa nahi eta nahiezkoa da, ni behintzat saiatzen naiz nire burua kuestionatzen eta hain injustuak diren pribilegioak identifikatzen nire baitan, pixkanaka deuseztatzen.

Irati: Joe, ba nire kasuan ere antzeko arrazoiengatik sartu nintzen bai. Baina eskola publikoen aldeko apustua eginez, ikastolak nahiko elitistak iruditzen zaizkit zeren....

*Xabik moztu egingo dio, esaten ari denaren gainetik hitz egiten hasiko da.*

Xabi: Eskola publikoak, hori bestea. Nazkatuta nago euskal hipokresiaz. Ikastolen alde abertzale guztiak, ah, bikain, eta euskal eskola publikoak zer? Getoak sortzeko utziko ditugu? Benetan lotsagarria dela, nik argi daukat, oposaketak atera eta publikora, jakina, bertan dago benetako erronka, Euskal Herri euskalduna nahi badugu behintzat!

*Izoztuta geratuko dira, Xabi hitz egiteko keinuarekin eta Irati entzuteko posturan, eskak gurutzatuta, berari begira ahoa itxita duelarik. Xabik eskuak mugimenduan, azalpenak emateko moduan, ahoa irekita eta Iratiri begira, albo horretara jiratuta.*

Irati: Bai halaxe da. Bueno ni hemen jaisten naiz. Egingo dugu planen bat Gasteiz aldean, oraindik ez dut jende askorik ezagutzen beraz, elkartu gaitezke.

Xabi: Bikain, nire koadrilako guztiak bukatu eta bueltatu dira dagoeneko, beraz, ez daukat lagun talderik oraindik. Idatziko dizut!

Irati: Ederki! Aio!

Xabi: Aio!

### **Bigarren eszena: Badaezpadako abixua**

*Aintzane eta Irati zerbait hartzen ari dira.*

Irati: Joe Aintz, ez dakizu, aurrekoan, Gasteizetik bueltan, Xabirekin etorri nintzen. Ze jatorra, hamaika gauzez egon ginen hitz egiten, beno, bera batez ere, eta aizu, ze tipo jantzia, ze begirada zorrotza duen egungo hezkuntza eta gizartearekiko, interesantea da tipoa. Gustatzen zaio hitz egitea e! Ez zidan ia hitzik ere egiten utzi, eta bira mingain bizikoa naizela e.. Ez naiz bakarra! (*barrezka*).

Aintzane: Ba bai, oso euskaltzalea da, bertsolaria da eta badauka intelektual aire hori bai. Baina nahiko mujeriegoa da e, Irati. Beti ligatu nahian dabil (*nazka aurpegiarekin*).

Irati: Bai zera! Ez dit inpresio hori eman, bat ere ez. Oso hurbilekoa eta naturala iruditu zait, neska. Baina beno, nirekin jai dauka, bai horixe! Jo ba benetan esaten dizut, kriston tipo jatorra iruditu zaidala.

Aintzane: Bai, bai. Jatorra bada....

*Eszena bukatzen da, argiak itzalita.*

### **Hirugarren eszena: Galtza motzak**

*Xabi eta Irati Gasteizen zerbait hartzeko geratu dira. Xabi Txapelarri tabernako mahai batean eserita dago, Iratiren zain.*

Irati: Kaixo! Zer moduz?

Xabi: Iepa! Ongi esan beharko. Zu zer moduz zaude?

Irati: Ba, ongi, bai! Zer nahi duzu?

Xabi: Kaña bat, mesedez.

Irati: Ederki.



*Tabernako barrara Joan da zerbitzariari edariak eskatzera.*

Irati: Kaixo!

Zerbitzaria: Arratsalde on, esan!

Irati: Bi kaña mesedez, bat tostaturua.

Zerbitzaria: Ados!

*Edariak emango dizkio.*

Zerbitzaria: 4 eta 20, horrela.

Irati: Tori justua, mila esker!

*Irati Xabirengana bueltatuko da.*

Xabi: Beno, eta zer dela eta hasi zara bada aurten karrera ikasten? Zure lagunek bukatu dituzte ikasketak, ezta?

Irati: Bai, gehiengoak bukatu dute bai. Ba beno, luzea da historia... Baina laburbiltzen, ikasketak utzi nituen, etxean arazoak izan genituen eta emozionalki oso gaizki nengoen... Horrez gain, ekonomikoki ere arazoak zirela eta lanean hasi nintzen. Beraz, ez zen ikasteko momentua, gainera, ez nengoen oso gustura egiten ari nintzenarekin.

Xabi: Egoera zaila orduan.. *(Besoan laztan bat egingo dio aurpegi arduratuarekin).*

Irati: Bai, oso. Orduantxe ere bikotekidearekin erlazioa utzi nuen. Egia esan ez genuen oso ongi bukatu *(desesperazio keinua).*

Xabi: Nik ere ez ditut oso esperientzia onak izan... Baina zuen artean zer gertatu zen?

Irati: Geroz eta okerrago sentitzen nintzen erlazioan, korapiloa handi bat nuen, eta hasieran ez nekien oso ongi zergatik zen. Hirugarren urtean, gertatzen ari zenari hitzak jartzen hasi nintzen, kontzientzia hartzen nolabait. Laburbilduz, nire gorputza epaitzen zuen etengabe, onera eta txarrera, besteen gorputz perfektuekin alderatuz, esanez benetako emakume bat ez dakit ze izeneko top-model bat zela, hori bai emakumea, kurba eta titi ederrak, eta argala nola ez.. Nik, hortaz, nire gorputza zaindu behar nuela zioen, zelulitisa ez ateratzeko, etab. Eta denbora pasa ahala, halako batean, berarekin egoteko gogoahitu zitzaidan, oso desmotibatuta nengoen, ilusiorik ez, ezertarako gogorik gabe. Beraz, utzi egin genuen.

*Izoztuta geratuko dira. Xabi bertan geratuko da eserita dagoen bezala. Asier pertsonaia eszenara sartuko da, eta Irati zutitu eta ondoan jarriko zaio. Biak zutik eta paseo bat ematen jarriko dira.*

*Flashback. Irati eta bere bikotekide ohia Asier egun pasa joan dira Miarritzera. Itsasertzeko paseoan daude inguruko bidez gozaten.*

Asier: Aspaldi ez genuela egun pasa bat egiten, ze ongi, baneukan gogoal!

Irati: Bai nik ere bai, hondartzara, ze ongi!

Asier: Pena da jantzi duzun arropak ez faboraraztea. Egia esan, barkatu horrela esatea, baina ez zaizkizu batere ongi geratzen galtza motz horiek, zure forma kaltetzen du. Berez daukazu gorputz politarekin ahalko zenuke hobeto luzitu, jope ze pena, eske okerrago ezin, benetan.

Irati: Hain gaizki? Jo ba niri ez zait horrela iruditu bada, gustatzen zaizkit galtza hauek.

Asier: Ez duzu ikusten ez dizula figura hobetzen? Zelulitisa ikusten zaizu gainera.

Irati: Ba beno, zer egingo diogu ba, ezin dut ezer aldatu, beraz, hauxe da dagoena.

Asier: Bai, bai, ez dizut txarrera esaten e, baina iaz ez zeneukan zelulitisik. Azken finean, gure gorputza ez badugu zaintzen hori pasatzen da, eta nik maite zaitudalako esaten dizut maitia, maitasunetik benetan... 19 urterekin edo 23 urterekin gorputza ez baita berdin mantentzen, eta emakumeengan are nabarmenagoa da. Zer esanik ez 30 egitean, aldatu egiten da, ez baduzu behar bezala zaintzen, jakina.

Irati: Beno udara honetan tabernan egon naiz lanean, eta badakizu ez dudala batere osasuntsu jan, nire gorputzari aldaketa suposatuko zion horrek, nik uste elikadura txarragatik izan dela.

Asier: A klaro, eske ia ez dituzu 19 urte maja! Badakizu gauza hauek zuregatik esaten dizkizutela pottoki, maitasunetik egiten dut, niri etxean ere horrela egin didate beti. Nire amak beti esan dit gaizki usaintzen dudanean, edo jertse bat ez zaidanean ongi geratzen beti esaten dit, eta nik asko eskertzen diot... *(tonu goxoarekin)*.

Irati: la... bai, bai... *(nahiko goibel, buru makur)*.

Asier: Ei Irati, jarri hor, oso leku polita da argazki bat ateratzeko.

Irati: Ados, horrela ongi?

Asier: Jo... ez balitz galtza horiengatik izango kriston argazkia izango litzateke! Pena!  
BROMA DELA! (*irribarretsu*) Baina bai, hortxe ederki zaude! Irribarre bat!!?

Oso polita (*goxo eta irribarre batekin*).

*Antzerki guztian zehar poto bat egongo da aurrealdean eta erdian pintura gorritz beteta. Iratik pintura gorritz betetako potoan eskuak sartu eta gorputzean esku markak egingo ditu. Argiak itzaliko dira.*

### **Laugarren eszena: Temaskal matxiruloa**

*Izoztuta geratu den pertsonaiarengana bueltatuko da protagonista, elkarrizketa utzitako lekuan berrartzeko, eta Asier eszenatik irtengo da.*

Xabi: Jope, ze nazka. Normala berarekin egoteko gogoia joan izana... Ez da bidezkoa, zer inporta du gorputzak. Gozatzeko dago, gizona, zelulitisarekin, gabe, argala, altua, baxua. Ez du inportarik!

*Eskua buruaren gainean jarriko du, eta bere barruko pentsamenduak altuan esango ditu publikoari begira.*

Xabi: Hori bai, guapa izan dadila, ez badu gorputz politik, aurpegia izan behar du, edo alderantziz, edota botere sozial edo laboral garrantzitsua edukitzea, boterea ere erakargarria baita... Ama izateak ere badu bere sexapila, baina izan berritan eh... justu-justu maduratu berri duen horietako neska katxondak, "recien maruditas"... hik bai jakin Xabier...

*Iratirekin duen elkarrizketara bueltatzen da.*

Xabi: A ze tipo nazkagarria! Benetan... sentitzen dut neska, ergel ugari dabil kalean.

Irati: Egia esan, tenporada luzea daramat mutilekin deus ere jakin nahi ez dudala.. nazkatuta nago. Badirudi beti bizkarrean zirrikitu bat libre daukadala haien labankada sartzeko. Beraz, paso! Baita piropoez ere, a ze nazka, nire gorputza bakean uztea hain zaila da? Balorazio on nahiz txar, aski da! Ez dago deskantsurik! Aski da. Aurrekoan ere, Temaskal bat egitera joan ginen lehenengo aldiz, eta zapla, hor ere.

.etengabe baloratzen dute,

*Feedback Temaskalera. Temaskalera sartzen, 8 laguneko talde bat, borobilean eserita, amalurra agurtzen. Marakak eta danborrekin kantuak eginez. Bertako gurua hasiko da hitz egiten, 50 urte inguruko gizon bat da. Bertan parte hartu duten*

*gainontzeko bostak 40-50 inguruko emakume eta gizonezkoak dira. Irati eta bere laguna 23 urte ingurukoak. (Guztira 4 gizonezko eta 4 emakume, guruaren emaztea horietako bat).*

Gurua: Gaurko zeremonian, lurra esnatzeko prozesua omenduko dugu...

*Kantu batzuk egitearen itxura egingo dute "Avatar" filmean bezala, lurra apax eserita eta mugimendu zilindrikoak eginez. Azkenean, bukaerako azken agurra eta eskertzea.*

Gurua: *(eskerrak ematen hasiko da)* Mila esker bihotzez, amalurrari bizia emateagatik, eta zuei lurra esnatzeko zeremonia honetara etortzeagatik. Berezi, lehen aldiz probatzera ausartu zareten biei, Irati eta Garazi, eskertzeko da jende berria, zuek bezalako neska gazteak eta guapak.

*Izoztuta geratuko dira. Irati altxa egingo da, haserre bizian.*

*Eskua buruaren gainean jarriko du bere barneko pentsamenduak altuan esateko publikoari begira.*

*Irati: Ze ostiatarako esan behar du guapak? Zertara dator?? Ez dut ulertzen! Nazka joder!*

*Eszena bukatzeko hurbildu eta esku markak egingo ditu gorputzean. Temaskaleko pertsonaiak atera egingo dira. Orduan Irati Xabirengana beltatu eta elkarrizketan jarraituko dute.*

### **Bosgarren eszena: Xabiren koartada**

Xabi: Ba niri ez zait iruditzen txarra denik guapa denari guapa esatea. Uste dut hor zuk daukazula ia paranoia eginda. Nik nire lagun eta ezagunei beti esaten diet, gustatzen zait. Segun zuk nola bizi duzun ba ulertzen dut gaizki hartzea, baina ez da gaizki dagoen ekintza bat. Nire lagun minak neskak dira denak, egia esan inguruan neska askoz gehiago dauzkat mutilak baino, erosoago sentitzen naiz. Eta beraiek ere kontatzen dizkirate gauza mordoa. Izugarri gustatzen zait haiei entzutea. Mainer da nire lagun onena eta askotan elkarrekin egiten dugu lo, kariñoso ikaragarria naiz. Bi lagun neska mutilek, nahiz eta heteroak izan, lagunak izan daitezke, nazkatuta naiz beti kontrakoa entzuteaz. Berarekin desaogutzen naiz eta inork baino hobeto ulertzen nau, mutilekin hitz egitea desberdina baita. Nik izugarri maite dut eta asko egoten gara elkar zaintzen.

Aizu eta gaiez aldatuz, ze asmo daukazu afaltzeko?

Irati: Pisukideekin afaltzeko asmoa neukan, baina ez dakit, nahi duzu etorri?

Xabi: Niregatik ederki, gustura joango naiz.

*Pisura joan eta Iratiren pisukideekin batera afaldu dute, mahaian eserita daude tertulian. Elkarrizketa anitz izan dituzte, eta ordua aurrera doa... Geroz eta beranduago, baina Xabik ez du etxera bueltatuko den seinalerik ematen. Gaueko 12ak direnez, protagonistaren pisukideak ohera joateko intentzioa adierazi dute. Joan dira. Irati eta Xabi sukaldean geratu dira, mahaian (isiltasun inkomodoa).*

Irati: *(guztiz harrিতuta, publikoari begira)* Ze ostra, a ze tipo arraroa, zergatik ez da etxera joaten? Super berandua da... no me jodas... Ohera joan nahi dut lotara! Nola bidali behar dut nik orain...

Xabi: Horko hori al da zure logela? *(seinalatuz)*.

Irati: Bai, hori da.

*Xabi altxa egingo da eta Iratiren gelan sartuko da.*

Irati: Aber, ze tipo arraroa, ez al du etxerik? Ez dut ezer ulertzen joder.

*Irati gelara joango da ea zertan dabilen ikustera. Xabi bere ohearen gainena eserita dago.*

Irati: *(erabat deskolokatuta)* E beno.. nik lo egin nahiko nuke, bihar klasera joan beharra dago eta deskantsatu egin nahi dut.

*Xabik ez dio erantzunik emango, isilik eta pentsakor geratuko da. Irati zeharo galduta, harridura aurpegiarekin.*

Xabi: Kaka zaharra! Gaur ere ez dut zebolleta arrimatuko! Ederki prestatu dut ba terrenoa, kaka!

Irati: Agian nahiago duzu bertan lo egin? Berandu delako etxera bueltatzeko?

Xabi: Toma! Badaukat aukera! Yujuuu! Gaua luzea da... *(irribarretsu)*.

Xabi: Ba egia esan horixe ari nintzen pentsatzen. Oraintxe pereza bastante ematen dit bueltak. Inporta ez bazaizu geratuko egingo naiz.

Irati: Ados, salan daukagun koltxoia ekarriko dut zuk bertan lo egiteko, lagunduko?

Xabi: Joder, ez dit erraza jartzen, beno, lehen esan bezala, gaua luzea duk Xabier!

Xabi: Noski!

*Ohea prestatu, arropak erantzi, pijamak jantzi, eta bakoitza berean sartuko da. Hitz egiten jarraituko dute zertxobait biharko klaseez, eta ordutegiez.*

Irati: Beno, iratzargailua jarri eta argia itzaliko dut.

Xabi: Ados.

Xabi: *(eserita jarriko da publikoari begiratzeko)* Oraitxe duk lehenengo aukera, emaiok Xabier! *(bere burua animatuko du)*

*Xabik eskua Iratiren ohe gainean jarriko du, eta bere bila hasiko da. Iratik sumatu bezain pronto paretan kontran ezarriko da, bera inolaz ere ez ukitzeko.*

Irati: *(eserita jarriko da)* Tipo zerri hau ze ostia dabil??? Ezin dut sinetsi, kontatu diodan guztia eta gero... Ez dut ezer ulertzen... Agian kariño beharra du? Baina eske nik ez dut behar ez nahi *(bere posturara itzuliko da)*.

Irati: E aizu, tapoiak jarri eta lo egingo dut, bihar arte, gabon *(lehor esango dio)*.

Xabi: *(eserita jarriko da)* Beno gauean ez bada goizean izan beharko! Ez da amaiera, lasai, badago esperantza oraindik! Ez etsi Xabier! Goizean agian bero esnatu daiteke, goxo-goxo, erdi lo... *(bere posturara itzuliko da)*.

*Xabik eskua jaitsi eta lo egingo dute.*

*Goizean goiz iratzargailuak jo du. Iratik geratu egingo du eta atzeratu egingo du pixka batez. Bat-batean Xabi Iratiren 90cm-ko ohean sartuko da berari deus ere esan gabe. Iratiri besarkatuta jarriko da, kilimak eginez, gorputza laztanduko dio. Irati buruz behera jarriko da. Oso deseroso eta blokeatuta geratu baita.*

Irati: *(eserita jarriko da hitz egiteko publikoari begira)* Ez dakit ze ostia pasatzen den, joder, ez nago batere eroso. Super inbadituta sentitzen naiz. Gorputza erabat blokeatuta daukat, ez dakit zer egin...*(etzan egingo da zegoen bezala)*..

*Xabik Irati laztantzen jarraitzen du.*

Xabi: *(Eserita publikoari begira)* haxe da nire aukera, lehenengo goxo-goxo laztan batzuk... eta gero al atake! Baina jo, buelta eman eta buruz behera jarri da... Zaila

jartzea gustatzen zaio antza denez... Beno nik ez dut amore nolanahi ematen, ez horixe! Txortaldi mañaneroak onenak dituk! *(berriz etzanda jarriko da)*

Irati: Ni komunera noa, jaiki egingo naiz.

Xabi: Ados *(besoak Iratiren gainetik kenduko ditu)*.

Xabi: *(eserita publikoari begira)* jakina, pixagurarekin ez da berdina, agian preserbatiboak ekarriko ditu... Ea zortea dagoen. *(Etzanda jarriko da)*.

*Irati komunetik bueltan da, ez da ohean sartuko berriro, baina ohearen ertz batean eseriko da.*

Irati: Zer, goazen gosaltzera? Klasera joan behar dut.

Xabi: *(eseri egingo da)* Jope, kaka zaharra! Azkeneko saiakera, benga Xabier! *(etzanda lehengo posturara bueltatu)*.

*Xabi etzanda zegoelarik, Iratiri galdera erantzun gabe, eskutik helduko dio eta bere gaineko aldera tiratuko dio. Etzanda geratuko da Irati, bere albo batean, Xabik bere besoa lepo azpian ezarri dio burua sorbaldaren gainean kokaturik. Xabik ez du hitzik ere egin.*

Irati: *(Eseri eta publikoari begira)* Aber, esan diot ez nengoela batere ongi erlazioekiko, ez nuela ezertxo ere jakin nahi. Kontsolatu egin nahi dit mindua nabilelako? Bera super mega kariñosoa delako? Baina nik ez diot eskatu...Nire intuizioak zakila sartu nahi duela esaten dit. Baina nire buruak ez du sinetsi nahi, ezin liteke... Buuf! Ez dut gehiago aguantatzen, banoa hemendik *(lehengo posturara bueltatuko da)*.

Irati: Beno, ni banoa gosaltzera *(oso lehor eta bizkor)*.

*Irati bere besoetatik askatu eta sukaldera doa. Gosaria prestatzen hasiko da. Xabi oraindik gelan dago. Minutu batzuetara sukaldera sartuko da.*

Irati: Kaferik nahi?

Xabi: Ez, joan egingo naiz. Beno, egongo gara. Aio!

Irati: Hau posible al da? Haserre dago gainera? Aupa hi, a ze tipo arraroa!

Irati: Ados, ba egongo gara, hortxe dago atea *(erdi kolokan, harrituta)*.

*Inolako agurrik edo eskerrik eman gabe joan da Xabi. Eszenatik aterako da. Irati atearen bestaldean aho bete hortz geratuko da segundo batzuez izoztuta. Jarraian pintura gorritz gorputza markatuko du potera hurbilduta. Ondoren eszenatik aterako da.*

### **Seigarren eszena: lehenengo mespretxua**

*Golotodidaktikako kurtsoan daude Irati, Xabi eta beste hainbat klasekide. Koadrila koxkor bat mahaiaren inguruan eserita, eta irakasle bat arbelean azalpenak ematen, zutik. Deskantsu ordua iritsi da, Xabier denekin dabil berriketan edota eztabaidan, baina Iratiri ez dio aurpegira begiratu ere egingo. Azkenean, Irati berarengana gerturatuko da.*

Irati: Kaixo Xabi! Zer, zer zermoduz asteburua?

Xabik, justu-justu aurpegira begiratuko dio milisegundo batez.

Xabi: (aurpegira begiratu gabe erantzungo dio, lehor) Ondo.

Ei, Mainer! Zer moduz asteburuko kontzertuak?

*Iratiri sekulako mespretxuz, berarentzako inortxo ere ez dela adieraziz egingo du. Ignorazioa bortitza da. Izoztuta geratuko dira eszenari amaiera emanez. Argiak itzaliko dira.*

### **Zazpigarren eszena: Irati ahituta**

*Irati Txapelarrin dago beste bi lagunekin zerbait hartzen. Hara non eta Xabi azaldu den beste lagun koadrila batekin. Kasualitatez, Iratiren lagunak ere ezagutzen ditu, beraz, haiengana hurbilduko da agurtzera.*

Xabi: Hombre, aspaldiko! Zer moduz zaudete?

*Bi muxu emango dizkie Iratiri izan ezik. Berari ez dio aurpegira begiratu ere egingo. Irati zur eta lur, ez du parte hartuko elkarrizketan. Azaleko elkarrizketa izango dute besteek. Irati geroz eta makurrago, uzkurtuz joango da erabat makurtu eta bola baten moduan geratzen den arte. Ondoren, Xabi joan egingo da besteei agurtuta. Irati existituko ez balitz bezala.*

Idoia: Ba oso ongi gabilta, parranda pixka bat egiteko asmoz! Zu zer moduz zabilta? Gaurko bertso saiorako prest?



Xabi: Ba oso ondo, egia esan magisteritza ikasten hasi naiz eta gogotsu bai! Orain bertso saioa hasi aurretik urduri xamar, baina normala da niregan, gero lasaitu egiten naiz. Beno, ea gero topatzen garen.

*Irati bola batean bihurtzen doa, uzkuratzen.*

Nerea: Zorte on! Joango gara ikustera. Egongo gara, ongi pasa!

Xabi: Ederki! Berdin!

Idoia: A ze tipo jatorra den, gainera bertsolaria! Interesgarri egiten dio.

Nerea: Joe ya te digo! Kriston tipoa ematen du, horrelako mutil sensible gehiago beharko genituzke, bai horixe, nazkatuta nago basurde matxiruloez!

*Elkarrizketa horrekin amaituko da eszena, Iratik bola bat eginda jarraitzen du lurrean. Argiak itzaliko dira.*

## STOP

### 5.1. FORUMARI HASIERA EMANGO DIOGU

#### 5.1.1. Obraren analisisa:

Zein galdera luzatzen digu?

Nola identifikatu espero ez dugun espazio bateko erasoak? Hain ezaguna ez dugun perfil horretatik eratorrita zer egin dezakegu erantzuteko?

Zein gai lantzen da?

Espero gabeko inguruetako erasoak, maskulinitate berriengandik edo femilistoengandik, hain zuzen.

Zein da obraren helburua?

Hain idealizatuta dagoen unibertsitateko garaian, emakume gazteei tresnak ematea horrelako egoerak identifikatzen jakiteko, saretzeko eta erantzuteko. Gazteei bezala-bezalaxe, adinez helduagoak diren gazte izandakoei ere.

Zer motatako zapalkuntzak ematen dira?

Generoen arteko zapalkuntza eta indarkeria:

- Mansplaining (lehenengo eszenan, autobusean).
- Emakumezkoen gorputzen gaineko hipersexualizazioa: emakumearen gorputza gizonezkoei bista pozteko objektuak (Temaskalean).
- Gorputzaren gaineko presioa edo itxuraren zigorra (Miarritzeko paseoan)
- Harreman heteropatriarkatuaren ondorio zuzenak, abusuak, boteredun posizioaren etekina, bazter egitea edo txiki egin nahi izatea (Iratiren etxean).

### Pertsonaiak

- Irati: zapaldua.
- Xabi: zapaltzailea.
- Asier: zapaltzailea.
- Aintzane, Idoia eta Nerea: Iratiren lagunak.
- Gurua: zapaltzailea.

### Publikoa/publiko ezberdinetan aztertu

Zorionez publiko zoragarria izan nuen. 22 urte zituen lagun gazteenak eta helduenak 47. Tartean 24, 25, 26, 28 eta 30 urteko lagunak zeuden. Egia ere bada, nire proposamen honen helburua gaztetxoagoetan eragitea zela, baina ez dut gazteagorik etortzerik lortu. Hala ere, izandako aukera hau, adinari ala bizipen ugariagoari esker ongarri paregabea izan dugu. Ekarpen landuak edo kontzienteak igartzen baitira. Kontuan ere izan behar dugu adinak ez dituela bermatzen bizipen aberatsagoa edo hausnarketa hornituagoak, baina gure egun hartako kasuan gehienak identifikatuak sentitu ziren honelako bizipenak izan zituztelako, denboran atzera begiratuta.

### Joker

Pertsonai honen papera badakit oso garrantzitsua dela, baina ez neukan giza baliabiderik. Hasieran nik neuk egitea pentsatzen nuen, baina antzerkian, protagonistaren papera egitea egokiagoa zela iruditu zitzaidan. Antzezlanara amaitutakoan Jokerraren papera hartu nuen, galderak luzatu eta publikoarekin zubilanak eginez.

### Leihoak

Antzerkia egin baino lehen, antzezlanaren egunean gerta daitezkeen interbentzioak aurreikusiko ditut atal honetan.

1. leihoa: hirugarren eszenan, Asierrekin paseatzen dagoen momentuan, gorputzari hainbesteko lata ematen dionean, agian norbaitek zerbait egingo luke Iratiren paperean, gorputza gehiago epaitzen jarrai ez dezan.
2. leihoa: bosgarren eszenan, Xabi Iratiren ohean sartzen denean. Norbaitek errotik moztu lezake intimitateari egindako eraso hori gertutakoan, Xabiri zuzenean ohetik ateratzeko eskatuz, edo Irati bertatik segituan aterata, blokeorik gabe.
3. leihoa: azkeneko eszenan, Irati lagunekin dagoenean eta Xabik bazterrean uzten dionean, zerbait desberdina proposatu dezakete. Agian Iratik Xabiri esatea ea zergatik baztertzen dion. Baina nik uste, batez ere, interbentzioa Xabi joaten den momentuan egingo dutela. Lagunekin geratzen denean, txiki egin beharrean kideei kontatu eta gertatutakoa salatzen hautua eginez.

#### Antzezlanak:

Gidoia jarraitu genuen ahalik eta berdintsuen. Egindako moldaketak hizpide hartuta, batez ere barne pentsamenduak esateko prozedura aldatu zen. Suerteak, izan ere, izan nuen, partaideetako bat antzerkilaria izaki, dramatizazioa ikasten ari da eta bere ekarpenak oso baliagarriak izan ziren niretzat egun hartan. Adibidez, eskua gainean ez jartzeko eta sinpleki publikoari begira hitz egiten bagenuen ongi ulertzen zela adierazi zigun. Egia da, sinbolikoki bazuela eskuarekin egiteko bere arrazoia, baina tira, azkenean bere proposamenaren arabera moldatu egin genuen. Testuari dagokionean, momentuan aldatu genituen hainbat gauza, azken finean islatu nahi nuena mamia edo gaiak ziren, eta ez zehatz mehatz buruz ikastea nik sortutako hitzen katea. Ideia plasmaztearekin nahikoa zen. Helburu nagusia hautatutako gaiekin publikoari eragitea baitzen.

#### Publikoaren parte-hartzea.

Grabazioan entzun daitekeen moduan, minorrekoetan jarraitutako prozedura antzekoa egiten ahalegindu nintzen. Egia da antzerkia martxan dagoen bitartean publikoak esku-hartzen duela, baina nire proposamena amaitutakoan egitea izan zen. Txukunago geratuko zela iruditzen zitzaidan, azken finean, antzerkia egiten lagundu zidatenei ere ez nien gehiago nahasi ez arduratu nahi. Beraz, esan bezala, amaieran egiteko gonbita luzatu nien. Hala ere, antzerkia hasi baino lehen jada argi esan zidaten ez zirela aterako, lotsa ikaragarria ematen ziela eta kamararekin are gehiago. Horrenbestez, ondoren, inork ere ez zuen erdira irten izan nahi ezer aldatzera edo proposatzera, baina hausnarketa eta haien iritziak adierazi zituzten.

liritziak eta sentsazioak bota ondoren, luze egon ginen hitz egiten. Momentu horretan, beraz, banan-banan galdetu nien ea zerbait aldatuko luketen zapalkuntza horri aurre egiteko. Ea zein pertsonaietan eta noiz. Bakoitzaren erantzunak idatziz gorde nituen honako proposamen hauek izan ziren, hona hemen euren aletxoak:

Eli:

1.- “Behin oheko eraso pasata, lagunekin tabernan zaudela Xabi agertu eta zuretzat paso egiten du. Berez zure lagun horiek badakite zuk Xabi ezagutzen duzula eta guay egongo zen galdetzea ea zerbait pasatzen den, deseroso nabaritu dizula eta Xabi agertu ere ez dizula egin. Horrela, aukera irekitzen da zuk erasoaren berri emateko laguneri eta hor elkar babestea, ulertzea eta eroa ez zaudela zehaztea, edozein neskari kontatu eta ulertuko baitzaitu. Babes soziala lortzeko aukera ireki daiteke zure lagunek Xabik zurekin arraro jokatu duela ikusi duten momentuan”.

2.- “Autobusean zaila ikusten dut, berak bakarrik hitz egiten duenean moztea ez da erraza izaten ezagutzen ez duzun norbaitekin, baina horrela ikusita nola ari den hitz egiten bota dezakezu zuk, sutilmente: bai, lan handia dago hezkidetzan eta berdintasunean, zeren orain ere, asko hitz egiten den gaia denez, mutil askok, bereziki ezkerrekoak direnak, bere egiten dute diskurtsoa eta alardeatzen dute asko feminismoaz beren super maskulinitateetan, baina gero, harremantzeko orduan, nexkekin oso praktika sexistak dituzte. Esan dezakezu posturo asko dagoela mutilen artean diskurtso feminista bere egiten dutenean baina beren praktiketan oraindik oso matxistak direla, eta horrelakoetan, gainera, ez dutela ikusi ere egiten. Arriskutsuenak horiek direla. Askok hitz egiten uzten ez dizun arren, uzten dizun tarte horretan horrelako komentarioren bat sartzeari, adibidez: bai bai... baina mutil askok...”.

3.- “Oheko momentua niri gogorra egiten zait, bakarrik zaude eta oso egoera bortitzean, oso zaila da hortik ateratzeko erramintak izatea, baina behin komunera irteten zarela eta berriro sartzera ia behartzen zaituenean, berriro ez sartzeko hautua egingo nuke. Hau da, esatea, sinplemente, oso deseroso zaudela, ez duzula berarekin konfiantzarik halako gertutasuna izateko eta bere lagunekin egiten badu ere zurekin egiten ari denak ez zaituela batere eroso sentiarazten, eta, hortaz, bazoazela”.

Esti:

1.- “Bai, sentitu non zer edo zer diferente ahal zela egin, bai, baina momentuan bizitza errealean egitea ez dala erraza ere ikusten dut. Adibidez, tabernan lagunekin bizkarra ematen zizunean eta zure lagunekin momentu ona zen esateko tal kual: kaixo, niri ez ignorau nirekin txortan jo nahi zenuelako eta ez zenuelako lortu. Momentu horretan

egingo nuke lagunekin zeundelako eta zuretzat inguru seguru bat izan daitekeelako, tipoak edozer nazkagarrikeri esanda ere ez zaude bakarrik”.

2.- “Bestea, Guruarekin, hain guayak eta konprensiboak direnak... momentuan horretan guaparena sobran zegoela esango nion, eta zertan ari den galdetzeko gogoia sartu zitzaidan”.

#### Iraitz:

1.- “Uste dut, batez ere, azkeneko eszenan, lagunartean zaudetenean, lagunak aldatu zezaketela jarrera. Batez ere sumatzen dutenean Xabik bizkarra ematen ari dizula, edo beno Iratik egindako komentarioei garrantzi gehiago eta zilegitasuna eman behintzat. Nolabaiteko ahizpatasun konplizidade hori indartzea inportantea dela iruditzen zait”.

2.- “Temaskalera joaten direnean ere, eta maisuak neska guapa eta gaztearena azpimarratzen duenean, erantzun mekanismo batzuk aurrez landuak edukiko bagenu horri erantzutea ere aldatuko nuke: hemen uste nuen neska gazte, zahar, polit edo itsusia izateak ez zuela inportarik, espazio libre batera uste nuen etorri nintzela”.

3.- “Beno, eta aldatu beharreko lehenbiziko jarrera eta moldeak Xabirena, baina pentsatzen dut hori esatea tranpa dela”.

#### Nerea:

1.- “Zure lagunak komentatzen dizunean Xabi oso mujeriegoa dela ba nik hori jakinda uste dut ez niola gonbidatuko etxera. Hala ere, hau esanda, burura etortzen zait zergatik, hemen ere, guk hartu behar dugun neurri hori, zergatik mugatu behar dugun geure burua. Beraz, zalantza daukat, ez dakit hori den egokiena, azkenean guk ez daukagu horrela beldurrez ibili beharrik”.

2.- “Xabikin ohean zaudenean, pixa egitera joaten zarenean, ni ez nintzateke bueltatuko ondora”.

3.- “Ignoratzen dizunean, klasean edo lagunekin zaudenean, adibidez, zerbait esango nioke: *zer, orain ez didazu kasurik egin behar? Adibidez*”.

4.- “Bikotekidearekin zaudenean eta gorputza kritikatzeko dizunean moztu egingo nioke, segituan”.

#### Amets:

1.- "Hasteko, argi geratzea nahi dut, nahiz eta proposatu nola egingo genituzkeen gauzak, ez dela zure kulpa edo inoren kulpa blokeatu izana momentu horietan, horrela gertatu zen eta oso zilegi da. Autobusaren momentuan, adibidez, sekulako gogoia eman zidan zure lekuan egongo banintz aurikularrak jantzi eta tipoa isilarazteko".

2.- "Gero lagunekin konpartituko nuke azkeneko eszenan, oso garrantzitsua iruditzen zait, isildu eta txiki egin beharreak, lagunei konpartitzea".

#### Ian:

1.- "Zaila egiten zait esatea zer egingo nukeen edo zer egin daiteken, baina adibidez Xabiri, oheko momentu horretan geratzeko eskatuko nion, zuzenean eta tajante eta kaka egitera bidali. Esprikaziorik edo eman gabe, azkenean ez zait iruditzen zure lana denik tipo hori edukatzea baina bai zure gorputza babestea".

2.- "Mikromatxismoekin, edo ohituago gauden gauzekin ere zerbait egingo nuke. Agerian uzteko egiten ditugun akatsak. Guruari, adibidez, hor zegoen edozeinek egin zezakeen zerbait, ez du zertan protagonistak hartu behar karga guztia".

3.- "Gero lagunei esatea ere ezinbestekoa iruditzen zait, ez ezkutuan geratzeko".

#### Naiara:

1.- "Bikotekidearekin zaudenean moztu egingo nioke. Badakit gero momentuan oso zaila dela kontzientea izatea eta egitea, ulertzen dut momentu oro Iratiren papera".

2.- "Temaskalean ere norbaitek esan edo egin posible du zerbait, agian paternalista zian daiteke moduaren arabera, baina iruditzen zait pixka bat kolektibizatu behar ditugula gauza hauek".

3.- "Argi eta garbi, tabernako azkeneko eszena horretan, zure lagunek pentsatzen dut ez zutela Xabirekin gertatutakoaren berri izango, baina hala ere, baztertu egiten dizu, bizkarra emanez. Niri gertatuko balitzaidake horrelako egoera bat, nire lagun bati hori egiten ikusiko banu, kontxo, nahiz eta ez jakin zer pasatu den, jo, uste dut hor zerbait egingo nukeela gugana biltzeko: *ei, barkatu, bizkarra ematen ari diozu*. Nik uste alertan ibili behar garela kontu hauekin, eta berriro diot, erantzukizuna ez da gertatzen dionarena bakarrik, hau da, bai iruditzen zaidala denok egon behar dugula erne. Erantzukizun nagusia noski Xabirena dela, edo gizonezkoena, baina denok daukagu ardura txiki bat, hobeki esanda, guri ez digunean zuzenean pasatzen baina ikusten dugunean, ba, baita ere guk badaukagula hor eginkizun txiki bat, konplize bihurtzen baikara bestela. Bestela esanda, ez dela zerbait pribatua, Xabi eta zure artean gertatu

den zerbait, baizik eta kanpokoek zerbait ikusten duten momentutik horiek ere parte hartzen ari dira”.

#### Iratxo:

- 1.- “Azkeneko eszenan bi lagun horiei kontatu zer pasa zitzaizun”.
- 2.- “Xabiri, ohean sartzen denean, moztu egingo nioke segituan: hau nire espazioa da, abusatzen ari zara, nire intimitatea erasotzen ari zara, eta ez da batere feminista ez sentsiblea, eskertuko nuke joango bazina hemendik oraintxe bertan”.
- 3.- “Temaskaleko Guruari: zaharra, itsusia eta gizona izango banintz nola eskertuko zenidake hona etorri izana?”
- 4.- “Asierreri: ez naiz jaio gizonezkoen bistari mesede egiteko”.
- 5.- “Glotodidaktikako klasean denen aurrean ozen esango nuke zerbait, bera inkomodatzeko: zer, orain ez didazu kasurik egingo? Benetan? Ez zenuelako lortu ezer nirekin? A ze patetikoa”.

#### Oihane:

1. “Ohean dagoenean Iratik Xabiri hitz batzuk esatea. Kontutan izan behar da momentu horretan blokeoa irrazionala dela baina horrelako ahal den heinean, Xabiri zertan dabilen galdetu eta arratsaldean hitz egindakoa gogoratuko nituzke. Tonu ez goxo batean, bere erosotasuna mozteko eta txoke bat izan dezan”.
2. “Azken eszenan, Xabi agurtu ostean eta lagunak beraz hitz egiten hasten direnean: Iratik gertatutakoa kontatzea, lagunaren iritzia aldatzeko edo beste ikuspuntu bat ikusteko, bide batez Iratiri karga kendu”.

## **6. AZKEN HAUSNARKETA PERTSONALA**

Publikoaren eta aktoreen feedbackei esker, argi geratu zait antzeman zituztela nik azalerratu nahi nituen zapalkuntzak, edo indarkeria matxista eta mikromatxismoak. Alde batetik, Mainsplainig fenomenoak, autobusean eman zena, antzeman eta batzuek oso identifikatuak sentitu ziren honelako bizipen antzekoekin. Gorputzarekiko zigorra, gizonen baloraziorako objektu bagina bezala tratatzea, esango nuke alderdi eraginkorra izan zela, gehienek pairatu zituztela aitortu baitzuten. Bazterketa sozialak txortan egitea lortu ez zuelako ere asko eragin zien, eta azkenik erasoak. Gehienek

hitzen arabera, oso momentu desererosa izan zen eurentzat ere, batzuek ezinegona izan zuten.

Ikusle eta antzezleen eskutik jaso ditudan iritziak kontuan izanik, agerian geratu den ondorio nagusia saretzearen garrantzia dela esango nuke. Ustez arazo pertsonala den hori publiko egiteak kolektibizatzeko aukera ematen du, “lo personal es político” esaldi famatua berriz ere hona ekarriz. Horrela dela argi baieztatzeko tresnak eskaini dizkigu antzerkiak, bertan geunden emakume gehienek bizitu baikenituen gauza berdina edo antzekoak. Beraz, sistema patriarkalaren estrategiak zelatatuak izan ziren.

Grabazioan entzun daitekeen bezala, ikusle batek adierazi zuena oso garrantzitsua iruditu zitzaidan, bere ekarpenaren arabera Irati edo zapalduaren ahotsa zilegi egitea azpimarratzen zuen, hau da, sentipenei garrantzia emanez, eta ez justifikazioari gure inguruak onar zezan. Ildo hori sakondu nahiko nuke ondorengo lerroetan. Berebizikoa iruditzen baitzait kulpa eta justifikazioaren gaia lantzea. Ikusle honen kasuan, Temaskalekoa adibidetzat ipini zuen, eta nik ere orain berdina egingo dut: ematen du, eszena edo egun hartan gertatutako “txikieria” horrengatik gaizki sentitzeak ez duela zentzu edo horrelako pisurik. “Ez da hainbesterako” esango du jendeak. Baina bai, izan zen. Nire kasuan gorputza uzkuritu zitzaidan, tripa irauliko balira bezala, edo kotxean zoazenean ezusteko zerbait gertatu eta erabat frenatu beharreko golpearen antzekoa. Etxera iritsitakoan, lehenengo sentipena errua izan zen, “txorakeria” horrengatik gaizki sentitzeagatik, ondoren justifikatzen saiatu nintzen azaldu nahian nire desererosotasunaren jatorria zein izan zitekeen. Hortaz, mekanismo hori da gainetik kendu behar duguna. Horretaz ohartzeko, ordea, elkarbanatzea ezinbestekoa dugu. Nire inguruko emakumeek ongi baino hobeto ulertu baitzuten zein sentimendu izan nuen. Eta ez nuela inolaz ere justifikatu beharrik, horrela sentitu nintzen eta kito, ez da nire gauza pertsonal edota paranoia bat.

Hainbat adituk azaldu bezala, emakumezkoen kondenetako bat horixe dugu, eta mekanismo hori normalizatua egoteak ez du mesede egiten. Brigitte Vasalloren hitzak gogora ekarriz, dena hitzez eta arrazoimenaren bidez ez bada azaltzen, edo ikusi ezin bada gure begiekin kanpoko ekintzen moduan, desgaitu egiten da segituan, baina sareak, gure arteko elkartasunak, horri aurre egiteko tresnak ematen dizkigu, bakarrik ez gaudela sentitzearekin batera, ez dela gauza pertsonala soilik, publikoa ere badela berretsiz (Carol Hanisch, 2016).

Saretzearen ondorio nagusiarekin jarraituz, mintzatu nahi dudana beste alderdia azkeneko erasoaren gainean kokatzen da. Xabirekin gertatutakoa, hain zuzen. Kulpa ere aipatu zen. Eta bete-betean, nire lehenengo sentsazioa errudunarena izan zen:



*agian ez nion hain argi utzi ez nuela nahi? Nire erruz gertatuko zen, nire lekuan ez jartzeagatik.. eta abar, eta abar. Ondoren, kontatzeak estutasun edo lotsa pixka bat ematen zidan, lagun berriak baitziren. Nire ohetik bota behar niola esango zidatelakoan, edo behar bezala erantzun ez nuela esango zidatelakoaren beldur nintzen pixka bat. Eta antzerki egunean ere horixe bera azaleratu zen, kulpa kendu beharraren garrantzia, epaituak izatekoaren kondena baztertzea, eta kontatzearen pausua gailentzea. Azken pausu horrek berebiziko garrantzia duela azpimarratu zen, euskarri moduan, eta nola ez, babes moduan. Beraz, hemen ere, esan bezala, sarearen beharra, kolektibitatearen garrantzia gailentzen da. Antzerkian Irati txiki egiten doa, pixkanaka geroz eta txikiagoa da, antzeman zuten ikusleek ere, baina hori ez gertatzeko elkertasuna giltzarri. Lagunekin elkarbanatzea eta elkar babestea dugu tresnarik baliotsuena.*

Azkenik, amaitze aldera, egun hartako sentipenak partekatu nahi nituzke. Ez nuen uste hain egun berezia izango zenik, ardura eta urduritasunak ere lekua baitzuten nire barnean, unibertsitaterako lana izaki. Hala eta guztiz ere, momentu benetan goxoa, entseguak ere benetan politak eta parte hartzaileak izan ziren, denen ekarpenak aintzat hartuaz, argi utzita edozein ekarpen ongi etorria izango zela. Bizipen pertsonalak erdigunean zirenez, harremana ere askozaz ere estuagoa izatea ekarri zuen, gertutasuna nabarmentzen zen gehienbat. Eta ikusleekin gauza berbera gertatu zen. Oso zaindua, goxatua, errespetatua eta ulertua sentitu nintzen, izugarria izan zen eguna. Amaitzeko, azken momentuan gertatutako gertaera aipatu nahiko nuke, sekulakoa izan baitzen: ikustera etorri zen lagun batek (nire ahizparen koadrilako bat), antzerkiaren ondoren, nire ahizparekin afaltzen ari zela niri gertatu zitzaidan abusu berbera gertatu zitzaizola kontatu zion. Niri bezala-bezalaxe Gasteizen, bertsolaria hura ere eta euskaltzale porrokatua. Gertatutako oso lausotua zuen, baina antzerkian argi ikusi zuen gertatutakoa zer izan zen, eta barruan zuen nahasmendua argitzen lagundu zion, bere esanetan, behinik behin. Bere izena galdetu zion orduan nire ahizpak, eta, ezin sinetsirik nago oraindik, mutil berbera zen. Izugarritzko amorruek kiskaltzen zidan barrua momentu hartan, oraindik ere sugarra bizirik dut barnean. Azken finean, kontatzeak dakartzan onurak momentuan jaso genituen, partekatuaz eraldatu eta saretzen baikara. Egia esan ez dut hitz nahikorik aurkitzen egindakoak edo gertatutakoak izan zuen potentzia deskribatzeko.

Oso argi geratu zaidana zera da, ez nagoela bakarrik.

## Bibliografía

### **Kontsultatutako iturriak:**

- Boal, A. (2009). Teatro del oprimido. *Día Mundial del Teatro*. <http://biblioteca.clacso.edu.ar/Cuba/casa/20200419044829/Teatro-del-oprimido.pdf>
- Boal, A. (2004). *El Arco Iris del Deseo*. Bartzelona: Alba.
- Boal, A. (2009ko martxoaren 3an). Foro Latinoamericano de Políticas Educativas.
- Boal, A. (2002). *Juegos para actores y no actores*. Bartzelona: Alba Editorial S.I.U.
- Boal, A. (1980). *Stop! C'est magique*. Paris: Hachette.
- Boal, A. (2018). *Teatro del Oprimido*. La Habana: Casa de las Américas. <http://biblioteca.clacso.edu.ar/Cuba/casa/20200419044829/Teatro-del-oprimido.pdf>
- Bueno, D. (2018). *Neurociencia para educadores*. Octaedro.
- Cabruja, T. (2021). Sobre Virginie Despentes y su Teoría King Kong. *Libre pensamiento*. Madrid.
- Calleja, L. P. (2018). *El Teatro Foro para la prevención de la violencia de género en la universidad*. Universitat de Les Illes Balears. [https://dspace.uib.es/xmlui/bitstream/handle/11201/148747/tfm\\_2017-18\\_MVI2\\_lpc416\\_1617.pdf?sequence=1&isAllowed=y](https://dspace.uib.es/xmlui/bitstream/handle/11201/148747/tfm_2017-18_MVI2_lpc416_1617.pdf?sequence=1&isAllowed=y)
- Cenizo, M., del Moral, G., Varo, R. (2011). El teatro como medio de sensibilización contra la violencia de género en la adolescencia. *Stichmythia*, 11(12), 255-267. <https://www.uv.es/lisis/gmoral/sticomythia2011.pdf>
- Cohen-Cruz, J., eta Schutzman, M. (2002). *Playing Boal*. Routledge.
- Emakunde. (2020). *Datos sobre la violencia contra las mujeres en la CAE, 2019*. Eusko Jaurlaritza: Emakunde, EDE Fundazioa. [https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia\\_evaluacion\\_informes/es\\_def/adjuntos/2019.informe\\_datos\\_estadisticos.pdf](https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_evaluacion_informes/es_def/adjuntos/2019.informe_datos_estadisticos.pdf)
- Esteban, M. L. (2013). *Antropología del cuerpo*. Edicions bellaterra.
- Euskal Herriko Bilgune Feminista. (2014). *Sexualitatearen eztabaida*. Emaraua.
- Fernández, M. L., eta Montero, I. (2012). *El teatro como Oportunidad*. Ridgen institut gestalt.
- Baketik Fundazioa. (2007). *Antzerki Foruma*. <http://baketik.org/web/imagenes/antzerki2.pdf>
- Gil-Juárez, A., Feliu, J., Vall-Ilovera, M., Biglia, B. (2013). *Trayectorias de vida tecnológica y género: factores psicosociales implicados en el acceso a las titulaciones de ingeniería informática*. Tarragona: Ministerio de Sanidad,

Servicios Sociales e Igualdad.

[https://www.inmujeres.gob.es/areasTematicas/estudios/estudioslinea2014/docs/Trayectorias\\_vida\\_tecnologica\\_genero.pdf](https://www.inmujeres.gob.es/areasTematicas/estudios/estudioslinea2014/docs/Trayectorias_vida_tecnologica_genero.pdf)

- Hanisch, C. (2016). *Lo personal es político*. Feministas Lúcidas. [http://autonomiafeminista.cl/wp-content/uploads/2016/07/lo-personal-es-pol%C3%ADtico\\_lucidas.pdf](http://autonomiafeminista.cl/wp-content/uploads/2016/07/lo-personal-es-pol%C3%ADtico_lucidas.pdf)
- Hooks, B. (2017). *El feminismo es para todo el mundo*. Traficantes de sueños.
- Mascaró, P. (2001). *Teatro, el arte en la enseñanza*. Ñaque.
- Motos, T. (2009). El teatro del oprimido de agosto boal. *Augusto Boal: integrador del teatro, del activismo social y político, de la educación y de la terapia*.
- Motos, T. (2009). II. Teatro Imagen: expresión corporal y dramatización. *El teatro del oprimido de Augusto Boal*.
- Motos, T. (2009). III. construyendo ciudadanía creativamente: el teatro. *El teatro del oprimido de Augusto Boal*.
- Otxotorena, M. (2018). Maskulinitateak. *Emakume eta gizonen berdintasunaren gaineko masterra*. UPV-EHU.
- Serra, C. (2018). Deseo y consentimiento no siempre coinciden. *Contexto y acción*.
- Serra, C. (2021). Negar el consentimiento. A propósito de la Ley de libertades sexuales. *elDiario.es*.
- Vaquer, A. (2017). Conceptualización, evaluación y análisis comparativo de los agresores sexuales. Universitat Abat Oliba CEU.
- Varela, I. [Irantzu Varela] (2018ko martxoaren 15ean). "Aliados" del feminismo. <https://www.youtube.com/watch?v=cFn2deOfPTM&t=4s>
- Varela, I. [Irantzu Varela] (2021ko otsailaren 4rean). *Irantzu Varela y el feminismo interseccional*. <https://www.youtube.com/watch?v=uyeRxomvQ6Q>
- Varela, I. [Irantzu Varela] (2018ko maiatzaren 3an). "Not all man". <https://www.youtube.com/watch?v=wWT9TfqDBQ0&t=35s>
- Varela, I. [Irantzu Varela] (2020ko urriaren 15ean). *Por qué hay que ser feminista*. [https://www.youtube.com/watch?v=wI5d-sR\\_vLc](https://www.youtube.com/watch?v=wI5d-sR_vLc)
- Varela, N. (2008). *Feminismo para principiantes*. De books.
- Vasallo, B. Komunikazio pertsonala. Deforme Semanal 3x03. (2020ko urtarrilaren 24an). <https://www.youtube.com/watch?v=70cMwTGAs7g&t=1537s>